



**IHOTEEN
DEIA** / 12-16

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1970ko hamarkadan Galdakaoko Andra Mari dantza taldeak Altsasutik heldu zitzaizen inauteriei buruzko "datu" batetik abiatu eta ikerketa lana egin ondoren, lehenengo aldiz Altsasuko inauterien errepresentazioa egin zuten Burunda frontoian. Horren ondoren altsasuarrek lekukoa hartu zuten, gaur egungo inauterietara iritsi arte. Gaur, otsailak 28, 19:00etan, Iortia kultur gunean (sarrerak agortuta), Altsasuko inauterien berreskurapen ikerketa eta prozesua jasotzen duen *Momotxorroak: Kaos baten istorioa* Kepa Otaegi eta Jon Eguskiza Andra Mari dantza taldeko kideek idatzitako eta zuzendutako film dokumentalaren emanaldia eta solasaldia izango da. Besteak beste, dokumentalean prozesuan parte hartu zuten altsasuarrek agertzen dira.

Nola izan zen berreskurapena? Zergatik Andra Mari dantza taldea?

Kepa. Dokumentala asko aurreratu gabe, 1970ko hamarkadan dena berreskuratzearen garaia zen. Frankismoaren atzapar eta indarkeria pixka bat leundu zen eta askatasun txiki horretan hizkuntza berreskuratzen eta abar hasi ziren. Olatu horretan Andra Mariri esan zitzaion bazezgoela datu bat hor nonbaiten zerbait desagertuta zegoen inauteri batzuk, eta ea nahi zuten bertara joan. Eurek erronka bereganatu zuten eta segituan Altsasura etorri ziren. Andra Maritik etorri ziren, baina altsasuarrengatik ere berreskuratzen zen. Harremanak nahiko sare-tuta egoten ziren. Andra Marik ardua hartu zuen, baina guztien arteko lan bat izan zen.

Noiz galdu ziren Altsasuko inauteriak?

Jon. 1976 urtearen bueltan Andra Mari taldeko kideak Altsasura etorri zirenean esaten zutenagatik joaten ziren pertsonak nahiko zaharrak izaten ziren, eta pertsona hauek gogoratzen zutena nahiko gazte, txiki edo ume ikuspuntu batetik zen. Orduan, Mikel Zamaioak Andra Mari



Kepa Otaegi eta Jon Eguskiza Andra Mari dantza taldeko kideak, Burunda frontoian atarian.

"Altsasun inauteri bat badago jende askori esker da"

KEPA OTAEGI ETA JON EGUSKIZA GALDAKAKO ANDRA MARI DANTZA TALDEA

Duela lau hamarkada baino gehiago Altsasuko inauterien berreskurapenari ekin zion; prozesu hori 'Momotxorroak: Kaos baten istorioa' dokumentalean jaso dute

dantza taldeko kideak eta berreskurapenaren prozesu honetan sartuta egon zenka esaten zuen 60 urtean egin barik egon zirela gogoratzen zutela; beraz, gutxi gorabehera 1910 eta 1920 hamar-

kaden inguruan. Aipatzen da 1916 urtea, baina agian uste dugu zerbait orientatiboagoa izango zela. Gutxi gorabehera hori zen kontatzen zutena; joaten ziren pertsonengana nahiko nagusiak

zirela eta oroitzapenetan nahiko galduta zutela inauteria.

Nork hartu zuen parte berreskurapenean?

K. Andra Marik erabiltzen zuen datu horretan Altsasuko familia

bat aipatzen da: goikoetxeatarrak. Horiei esker eta horien bitartez hasi ziren Altsasuko zaharrekin harremanetan eta informazio hori berreskuratzen eta batzen. **J.** Garai hartan Kepa Artetxe taldeko aitzindarietako bat ibili zen burubelarri, baina Mikel Zamaioa ere. Orain dela hiru urte zendu zen, berarekin hasi ziren elkarrizketak, baina tamalez ezin izan du lan hau bukatzen ikusi. Andra Mariren partetik dokumentalean agertzen diren pertsonak dira zuzenean sartuta egon zirenak. Ez bakarrik agertzen direnak, azkenean atzetik ere lan asko dago, pertsona horiek hona etortzeko beste batzuk Galdakaon gelditzen ziren beste behar batzuk egiten. Talde oso baten lana da, makinari bat dago horren atzean.

Zein momentutan sartu ziren altsasuarrek?

K. Askotan esaten dugu Altsasuko inauteria gaur egungo ikuspegitik oso erraldoia dela, nik uste euskal kulturaren barruan hamar gauza aipatzen badituzu, Altsasuko inauteriak agertuko lirake edo ez zen arraora izango Altsasuko inauteriak agertzea. Oso mundu handia da, oso unibertso handia. Altsasuarrek sekulako lana egin zuten. Gaur egun Altsasun baldin badago inauteri bat jende askoren arteko lana izan zelako da, batez ere altsasuarrek euren lana egin zutelako. Andra Marik batu egin zuen. Beste toki batzuetan ere batu egin ditu, eta ez da Altsasun gertatu den fenomeno berdina gertatu; beste batzuetan berreskuratzen duzu, baina ez duzu berpizten. Hemen berpiztu zen. Altsasuarrek sekulako lana egin dute, eta protagonismo nagusia haiek dute. Horregatik dago bizirik. Guk kontatzen duguna da Andra Marik zer ekarri zuen.

Zuek zein momentutan sartzen zarete?

J. Andra Marik Altsasuko inauteria Galdakaon 1992. urtean sartu zituen euskal kulturaren egutegiaren barruan. Proposatzen zen herri inauteri batzuk egitea eta Altsasuko inauterien ohitu-



**TALLERES
GOÑI
TAILERRAK**





- Ibilgailu guztien txapa konponketa eta margoketa
- Errotulazioak
- Jaso eta etxera eramateko zerbitzua



Akaborro II industrialdea • IRURTZUN • 680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com

ra hor zegoenez geuk ere Altsasuko inauteriak egiten ditugu. Orduan, urteak joan eta belaualdi berriak etortzen zirenean ikusi genuen gazteek parte hartzen zutela, baina benetan jakin gabe zertan zebiltzan. Mozorro-tu bai, baina ez zekiten zer zen. Hutsune bat ikusi genuen. Bazekiten Altsasuko inauteriak zirela, berreskuratu zirela, baina belaualdi berriei transmisio hori galdu zela ikusi genuen, eta ariketa polita izango zela elkarriketa batzuk egitea, ikusi inauteria zer den, sinbologiaz beteta dagoen inauteria dela eta abar. Esan genuen: goaz taldeko gazteei erakustera zergatik egiten den hau, guk egindako berreskurapen bati esker dela eta lotura bat dagoela. Elkarriketak egiten hasi ginen, eta ikusi genuen ez zela taldean bakarrik erakutsi beharreko gauza bat zela, baizik eta lanketa sakonago bat egin behar genuela. Elkarlana agertzen da, altsasuaren eta galdakaoarren artean. Merezi zuen horrelako lan bat egitea, bai istorioa hobeto ezagutzeko bai hurrengo belaunaldiek jakin dezaten zer gertatu zen edo zer eman zen inauteria berreskuratu ahal izateko.

Noiz eta nola ospatzen dituzue Altsasuko inauteriak Galdakaon?

J. Astearte inauteriaren aurreko larunbatean, hau da, aurten martxoaren leian. Asteburuan ospatzen dugu, ez asteartean Altsasun bezala. Esan dezakegu inauteriak berreskuratu bezala egiten di-

"ANDRA MARIRI ESAN ZITZAION BAZEGOELA DESAGERTUTAKO INAUTERI BATZUEN DATU BAT"

"ALTSASUKO INAUTERIAK GAUR EGUNGO IKUSPEGITIK OSO ERRALDOIA DA; MUNDU HANDIA"

"ALTSASUARREK SEKULAKO LANA EGIN ZUTEN; HORREGATIK DAGO INAUTERIA BIZIRIK"



'Momotxorroak: Kaos baten istorioa' dokumentalaren une bat. ANDRA MARI

tugula. Gure kasuan ez du herri guztiak parte hartzen, bakarrik dantza taldearen ekosistemako partaideak, eta esan daiteke gure kasuan erritualak nabarmenagoak mantendu direla. Hemen momotxorroa pertsonaia nagusietako bat da, baina han ereintza, idiak eta abar landu ditugu. **K.** Galdakaon desfilea egiten da, baina desfilearen barruan momotxorroentzako askatasun bat dago. Momotxorroek badute erasotzeko gaitasuna, jendearengana joateko, bihurrikeriak egiteko... Egia da gaur egun gizarteak gero eta edukatuagoak izatera eramaten gaituela, baina Galdakaon Altsasurekin alderatuta uste dut askatasun hori badagoela eta barrabasadak egiteko aukera handiagoa ere badagoela. Orain ja ez, baina lehen zirikatzen zuten haurrak eta edukiontzietara sartzen genituen, udaltzainen kotxeetan sartzen ginen eta horrelakoak egiten genituen. Biolentziaren zera hori. Altsasuarrek haren lana egin zutenean eta Andra Marik jaso zuenaren arabera biolentzia hori aipatzen zuten: "baina nola egin behar duzue berriz hori, oso biolentoak dira!", **Zer kontaktzen du dokumentalak?** **J.** Bi ildo lantzen ditu: alde batetik, berreskurapenarena. Zelan heldu zen datu bat eta ikerketa hori gauzatzen eta berreskurapenarekin hasi zen. Nola lortu zen 1978an saio bat egitea Altsasun, Burundan fron-



'Momotxorroak: Kaos baten istorioa' dokumentalaren une bat. ANDRA MARI



'Momotxorroak: Kaos baten istorioa' dokumentalaren une bat. ANDRA MARI

toian; aurretik Tolosan egin zen bat. Gero, nola altsasuarrei lekuko bat eman zen, eta hortik eurak hasi ziren ikerketa bat egiten eta ikusi dugu zertan amaitu den. Bestetik, inauteri horren esanahiaren inguruan ere hitz egiten du dokumentalak. Zer esan nahi duen momotxorroak, ereintzak eta horren atzetik dagoen guztiak. Esanahiaren inguruan ildo desberdinak egon daitezke; lanketa eta interpretazio desberdinak. Guk landu duguna eta gehienbat erakutsi duguna izan da Andra Marik jasotako hori. Ez dugu esaten bakarria denik, baina guk egindakoa hau da. Uste dugu altsasuarrei dago kiela eurek euren kontakteez edo eurek batutakoa kontakteez. Agian desberdina da. Bakoitzak bere lan ildoak izan dezake.

'Momotxorroak: Kaos baten istorioa' zergatik izenburu hori?

K. Altsasuko inauterietatik gehien ezagutzen den pertsonaia momotxorroa da. Pertsonaia gehiago daude, baina ezagunena momotxorroa da. Kaos baten istorioa zergatik? Inauterietan gaude, inauterietan ordenari buelta ematen zaio, eta ordena ez dena kaosa da. Desagertzearen istorioa kaos horretan sortutako ezbehar baten abiapuntua da. Bestetik, brometan esaten dugu dokumentala egiterako orduan ere nahiko kaotikoa izan dela, tartean pandemia izan zen eta mila gauza gertatu ziren. Azkenean, portu onera iritsi gara.

Zenbat denbora egon zarete dokumentala egiten?

J. Ikerketa fasea 2019ko eguberrietan egin zen. Iruñean, Galdakaon eta abar horren inguruko hitzaldiak ematen hasi ginen, eta asmoa zen hortik lanketa bat egitea. Iruñera etorri eta hortik aste gutxitara pandemia batean sartu ginen eta lehentasunak aldatu ziren. Andra Marik artxibo fondo handia zuela ikusi genuen eta digitalizazioan hasi ginen. 1300 artxiboetatik gora digitalizatu genituen. Dokumentala lantzen hasi ginen eta momentu batean proiektua bertan behera geratzeko arriskua egon zen. Horregatik kaos hori luzea izan zen. Baina esan genuen jende honek errespetua merezi duela eta, azkenean, Andra Mariren 70 urteurrena ospatzen dugunez, honi esfortzua bideratuko geniola.

Espero zenuten horrelako lan bat egitea? Horrela irudikatzen zenuten?

K. Hasieran hitzaldi bat izan behar zen. Baina materiala biltzen hasi ginen, eta apurka-apurka gidoia egin genuen. Gauza asko kontatu behar dira eta denbora mugatua da. Gero produktorengana joan ginen eta eurek ikusi zuten kontatzeko istorioa bat zela.

J. Hasiera batean transmisio ariketa bat izan behar zen; belau-naldi berriei erakustea zer zen, eta hortik hauxe sortu da.

Altsasuko inauterietan egon zarete? Nola ikusten dituzue?

K. Niri pozten nau herri batek parte hartzen duela, eta euren nortasunean sartuta dagoela. Gauza ederra da. Baina gero Galdakaorekin alderatuz askoz libreagoa dela ikusten dut; hemen kalejira bideratuagoa da. Baina poztasun handia da, jakinda Euskal Herrian erreferentia dela.

J. Guretzako Altsasuko inauteriei buruz hitz egiten denean oso gertuko bezala sentitzen dugu; gureak ere izango balira bezala. Harrotasun puntu bat dago. Taldeko jendeari esker esan daiteke Euskal Herriko inauteri esanguratsuenetariko bat dela. Poztasuna eta harrotasuna.

Durangon mustu zenuten, Euskal Herriko hainbat txokotan egon zarete, eta gaur Altsasun. Zer nolako harrera izan du?

J. Harrera ona dabil edukitzen; *feedback*-a positiboa da. Jendeari gustatzen zaio. Ongi kontatuta dago eta denbora ongi planifikatuta. Ulertzeko erraza da inauteri parte ez direnentzako edo Altsasuko inauteria ezagutzen ez dutenentzako. Nahiko bideratuta dago eta uste dut azkenean egin dugunarekin pozik eta gustura gaudela.

K. Kariño eta errespetu handiarekin egin dagoen lan bat da.

Altsasun egongo zarete? Zer espero duzue?

J. Otsailaren 15ean Iruñean egon ginen eta bertan jorratu zen inauterien masifikazioaren gaia. Nik uste hemen ildo beretik joan ahal dela. Batzordearekin hitz egiten egon ginen, eta eurek ere hausnarketa horretan dabilta, eta masifikazio horrek ez ote dion kalte egiten inauteriarri. Behintzat dokumentalak balio dezake horren inguruan hausnarketa eta gogoeta egiteko. Badabilta. Agian lan hau heldu eta euren ere egiteko; altsasuarrek altsasuarrena kontatzeko eta horren inguruan lanketa egiteko beste indar edo arnas bat ekartzeko. Hartu eman horrekin ere

batzordeko kide batzuk gonbidatu ditugu Galdakaoko Altsasuko inauterietan parte hartzera. Ikus dezaten zelan bizitzen dugun guk. Horrek balio dezake desikasten ikastera, beste prozesu horrek begiak zabaldu eta beste ikuspuntu bat eman ahal zaie Altsasuk bizi duen hausnarketa horretan.

K. Dokumentala Altsasun ematea bada errespetu handiko momentu bat. Beste nonbaiten ondo dago, baina atsasuarrez hitz egitea eta altsasurrek hitz egindako hori Altsasun ematea ez da beste toki bat. Hor zerbait dago. Dokumental hau batez ere Andra Mariren ikuspuntutik egin dugu, Andra Mari delako gure errealitatea eta unibertsoa. Egia da dokumentalean muga bat egon behar dela eta mugahori 1982koa da uste dugulako, esan bezala, altsasuarrei dagokiela euren istorioa kontatzea. Guk baguen kontatzea, baina gauza batzuk ez dagozkigu guri kontatzea. Momentu batean esan genuen: goazen kontatzera eurek ere nola egin zuten, baina kontraesan bat zegoen. Guk gurea kontatu dugu, eta zabalikuzten dugu bigarren kapitulu bati; 1982an gertatu zen bezala altsasuarrek euren istorioa kontatzea.

Behar da horrelako lan bat Altsasun?

J. Niretzako lan hau oso aberasgarria izan da inauteria hobeto ezagutzeko eta atzean dagoen esanahiak edo pentsamendu ildo hori hobeto ezagutzeko. Altsasuarrentzako oso interesgarria izango litzateke euren egitea. Zelan 1978an lehenengo aldiz egin ostean altsasuarrek hartu zuten eta lanketa hasi zuten. Enrike, Patxi, Amaia, Satur eta beste hainbat ere. Euren gana jo eta zelan egin zuten prozesu hori; zelan lortu zuten herri batengana iritsi eta identitate hori sortu. Txikitatik mozarrotzen dira Altsasun, DNA daramate. Zelan lortu zen hori.

"BELAUNALDI BERRIENDAKO TRANSMISIO LAN BATETIK SORTU ZEN DOKUMENTALA"**"GALDACAON ALTSASUKO INAUTERIAK OSPATZEN DITUGU; BATZORDEA GONBIDATU DUGU"**

Altsasuko inauterietako pertsonaiak. MAITE MARTINEZ

Inauterien oraina eta etorkizuna

Altsasuko Herri Inauterietako batzordean hamabost kide inguru batu direla aurtun esan dute Naiara eta Maddi Urkijo batzordeko kideek. Inauteriak pasa eta dagoeneko hurrengoetan pentsatzen hasten direla esan dute, "gure buruetan etengabe gaude inauterietan pentsatzen". Modu ofizialean Altsasuko festak pasata, irailean, hasten dira inauteriak prestatzen; ferietan antolatzen duten txosna prestatzen hasten dira, eta ondoren "gauzak aurreratzen" hasten dira.

Martxoaren 4an ospatuko dira aurtun inauteriak, eta azken urtetan inauteriak izan duen masifikazioa izan da batzordeak izan duen eronkarik handienetako bat, eta aurre egiteko aurtun hainbat aldaketa proposatu ditu. Aldaketarik handiena Zelandiko irteeraren ordena izango dela esan dute urkijotarrak. "Momotxorroak 19:30ean ateratzen ziren Zelanditik eta aurtun irteera bat 19:15era aurreratu dugu eta sorginak, Akerra, maskaritak eta segizio orokorra aterako da, eta ondoren t'erdietan momotxorroak". Erabaki hau hartu dute mozarrotu gabeko jendea "momotxorroen atzetik ez jartzeko eta inauteri guztia ikusi ahal izateko". Hortaz, jendea mozarrotzera gonbidatzen dute batzordetik: "Mahoizko prakak, marradun gonak eta abar jantzi eta etorri inauterietara!". Izan ere, aurtengo beste aldaketa bat izango da Zelandira, odolaren erritualera, bakarrik mozarrotutako jendea sartu ahal dela. "kanpotik ikusteko aukera izango dute, baina barruan ezingo da sartu".

Masifikazioari aurre egiteko hartu duten beste erabaki bat da herritarren artean "lehenengo inauteria" sustatzea. "Ez lehenengo basakeri handia, baina bai aurtun momotxorroak animatzen ditugu kalejiratik ateratzera eta herrian bere tokia hartzera; sardearekin kolpatuz, bultzadaxoak eman...". Inauteria horrelakoa dela gaineratu dute. "Etortzen den jendeari inauteria bizirik dagoela erakutsiko diogu, errespetatzeko, eta ez bazaie gustatzen...".

"Badakigu proposatutakoaren erdia baino gutxiago aterako dela, eta egongo dela jendea gustatuko zaiona eta gustatuko ez zaiona. Hori badakigu. Baina pozik aterako gara, guk lana egin martxoaren 4ra arte egiten dugu; gero ez dago gure esku". Proba-errorea izaten dela gaineratu dute: "Aurreko urtea segizioan eramaten zen soka kendu genuen, eta soka kendu dute; Foru plazako atea ere inork ez zuelako atea nahi, aurtun egongo dira....".

Aldaketen berri emateko pertsonaia desberdinekin batzarrak egin dituzte. "Horrenbeste aldaketa proposatu nahi genituenez pertsonaiei helarazi behar genien. Ezin dugu esan sorginak lehenago aterako direla, eta sorginek ezer ez jakitea". Pertsonaiei haien momentua, tokia eta eginbeharrak zeintzuk diren jakinarazi zitzaizkien batzar horietan, "baita haiei entzuteko ere. Elkarren arteko komunikazio bat egoteko. Gu ez gara bozeramaileak; ez da inposaketa, haiek entzun nahi genituen ere, hobe antolatu ahal izateko". Batzordean ideia

berriak entzuteko prest daudela esan dute urkijotarrak, "mundu guztia da ongietorria".

Berreskurapena

"Berreskurapenaren istorioa ezagutzen dugu, eta prozesu horretan parte hartu zutenak ezagutzen ditugu eta esaten dute: "Beste herri batetik etorri behar izan ziren gure inauteriak berreskuratzera!". Inauteriak prestatzeko prozesuan berreskurapenean parte hartu zutenak gogoan izan ditu batzordeak, "badago jende pila bat ez dakiena beste herri batetik etorri zirela berreskuratzera; orduan, jendeak istorioa ezagutu behar du. Gure inauteria da, baina laguntzera etorri ziren". Galdakaoko taldekoekin hitz egiten eta haiek ere Altsasuko inauteriak egiten dituztenez kontuan hartuta, "oso fuertea" iruditu zaie zer desberdina den haien errepresentazioa Altsasukoarekin konparatuz; "ez dugu izaera berdina, eta hori sekulakoa da".

Andra Mariren *Momotxorroak: Kaos baten istorioa* film dokumentala gaur ikusiko dute Urkijo ahizpek. Andra Mariko kideek orain altsasuarrei dagokiela haien istorioa kontatzearen inguruan galdetuta, "batzordean gaudenetik esan izan dugu 50 urtemugarako dokumental bat egin behar dugula hasi zirenen testigantzekin, nola egin zuten eta nola iritsi den gaur egun arte". Sekulako lana dela gaineratu dute, "behintzat buruan dago, eta ez bakarrik gure buruetan. Aspalditik inauterietan sartuta egon direnek ere dute hori buruan".



ASTEKOA

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Amerikako Golkoaren ipuina eta Mexiko Golkoa

Behin batean, 2003. urtean, UNESCO deritzan nazioarteko erakunde batek herrien ondare inmateriale (eta leku izenak horren zati dira) zaintzeko beharra agindu zuen.

Agindu horri jarraikiz, 2007an, Hizkuntza Espainiarraren Akademien Elkarteak ez zuen onartu erdaraz ohikoa den *Bielorrusia* ordez *Belarus* esaten hastea, edo *Costa de Marfil* ordez, *Côte d'Ivoire*, edo *Moldavia* ordez, *Moldova*, nahiz eta horiek izan Geografia Izenen Nazio Batuen Bederatzigarren Konferentziak erabiltzeko agindu zituenak; baina ondare inmateriale zaindu beharra zegoen. Horregatik ere, Espainiako Errege Akademiak ez zituen *Zelanda* eta *Nueva Zelanda* izenak baztertu, nazio gazteladun gehienetan *Zelandia* eta *Nueva Zelandia* erabili arren. Ipar Koreak helegite bat aurkeztu zuen, nazioarteko mapa guztietan beren itsasoari *Japoniako itsasoa* deitzen zitzaizolako.

Berriki, zenbait herri *Sierra de Cantabria* izenaren defentsan atera dira, Institutu Geografiko Nazionalak inposatu nahi dien *Tolono* leku izena onartu nahi ez dutelako. Onomastika Elkarteak Salvak esan didanez, Meano herrian bertan ere *Sierra de Cantabria* izena erabiltzen dute hestebeteak saltzen dituzten bi etxek, agerian utziz, haien izenak behintzat, beren mendiak (*Lapoblacion* eta *Lehoi Lokartuaren Haitza*) mendilerro horretakoak direla.

Egun, nazioartean zabaltzen ari diren mapa guztietan ohiko *Mexikoko Golkoa* izenaren ordez, *Amerikako Golkoa* irakurtzen da toponimiazale arriskutsu batek hala erabaki duelako. Utziko dugu Gaza suntsitzen eta deuseztatzen *Oriente Ertaineko Riviera* toponimo berria ezar dezan?

HARA ZER DIEN

Ama hizkuntzetatik ijito herriari keinua

SAKANAKO ANITZARTEAN
KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

2025. hau Ama Hizkuntzen Nazioarteko Eguna ospatzen deneko 25. urteurrena da. Hizkuntza aniztasunean aritzeak mundu inklusiboago baten alde aritzea dakar. "Gizarteak, kultur aniztasunak ere badira haien hizkuntzei esker" (UNESCO), besteekiko tolerantzia eta errespetua sustatzen baitute.

Asko eta anitzak dira Sakanako herri zein txokoetan bizi eta entzun ditzakegun ama hizkuntzak, hitzak eta hizkerak. Nahiago hitz goxoak, abegikorak, atseginak, kalterik gabekoak. Baketik eta maitasunez adierazten direnak. Hartzaileen bihotzera apal eta soseguz iritsiko direnak. Oihukatzen ez dutenak, iraintzen ez duten hitzak, arima laztantzen dutenak, ongi sentitzea dakartenak.

Ongi etorria haiei: *MISTHÉ AVILEN, SVAAGAT HE,*

YÉCSILÉN AK DIAAM, BEM-VINDA, BINE ATI VENIT, BENVIDO, BENVINGUDES, ALLINLLA CHAYAYKAMUY, WILLKOMMEN, I DANSE, BITAEM, BENVENUTO, FÁILTE, ÜDVÖZÖL, WITAMY, WÄLKOMMEN, HOS GELDIN, MARHBA, MARHBA WA SAHLA (hassani-eraz)...

Herri bakoitzak ditu bere hitzak, esaldiak, esamesak eta mezuak. Babestu eta mantendu beharreko altxorrak. Bizitzak oparitzen dizkigu hitz berriak, eta gure hiztegia aberasten: Ubuntu (bestearekiko gizatasuna, Hego Afrikan), Karibu (ongi etorri swahili eraz), Cafuné (besteari maitasuna eta patxada emateko unea adierazten duen hitza Brasil edo Portugalen).

Hitzekin mindu daiteke, ordea, ez bagaude erne. Tamalez, askotan gertatzen da besteen hitzak, istorioak,

esateko dutena kontutan izan gabe, besteengandik hitz egitea, etiketak jartzea, estereotipatzea. Ez da bidezkoa.

2025eko martxoaren 3 honetan 526 urte betetzen dira Espainiar Estatuaren Ijito Herriaren kontrako jazarpenetik. Borrokan dihardute, erresistentzian. Haien hitzetan: "behar duguna da gure historia, sufrimendua, borroka, lana eta talentua zuenganatzeari uztea. Gutaz gu gabe hitz egiteari uztea. Zapaltzen gaituen sistema mantentzeari uztea".

Haien izenak: "Sastipen Thaj Mestipen"; Osasuna eta askatasuna.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: gutunak@guaixe.eus

GUTUNA

Euskararen gurditik denok tira egin behar dugu, baita hezkuntzan ere

INIÑO ORELLA ALTZUETA

ANDRA MARI IKASTOLAKO ZUZENDARI
PEDAGOGIKOA

Ez dira gutxi azken boladan euskara bere onenean ez dagoela eta bere transmisioa bermatuta ez dagoela ohartarazten ari diren ahotsak. Bestetik, inork ez du ukatzen hezkuntzak ezinbesteko betebeharra duela

euskara eta euskal kulturaren biziraupenerako. Erronka estrategikoa bezain ilusionagarria da, eta dudarik gabe denon bultzada eta elkarlana beharko du.

Berriki euskararen egoeraren inguruko Iñaki Iurrebasoren hitzaldia aditzeko parada eduki genuen. Zantzu guztiak negatiboak ez badira ere, gehienak oso kezagarriak dira. Euskara bidegurutzean dagoela esan dezakegu, eta euskal jendaratean zein mundu mailan gertatuko diren hurrengo

aldaketak ez dira izanen euskararen mesederako.

Ezin dugu ahaztu Nafarroan hamar ikasletatik seik ez dutela inongo harremanik ikasketa prozesu osoan bertako hizkuntza den euskararekin, herrialde honetako arnaguneetan ere euskararen erabilera soziala ahultzen ari dela, administrazioak maizegi euskara bere etxean bertan arrotz balitz bezala hartzen duela eta hiztunen hizkuntza eskubideak etengabe urratuak izaten direla.

Euskararen aldeko herri apustuak eragile sozial guztien elkarlan estua eta inplikazioa behar du, kontrako korrantea sendoa baita. Hala ere, badira kinka honetan gure arteko lubakietan elkarri mokoka aritzea lehenesten dutenak. Ez gara ohartzen ondokoaren zilegitasuna kolokan jartzen dugun bitartean arrabola gainetik pasako digutela?

Utz diezaiozun betiko larrean etengabe bueltak emateari. Argi dezagun euskal hezkuntza sistema burujabe helburu,

izaera desberdineko idiak izanik ere, nor dagoen prest gurditik aurrera tira egiteko eta zeini interesatzen zaion tira egiten duen iditakoren bat akabatzea. Euskararen gurdiak aurrera joko badu, bi idi indartsu beharko dira elkarren ondoan tiraka eta ez elkarri ostikoka.

Jagoba Arrasatek Nafarroa Arenan bertsotan abestu zuen bezala: "Euskara eta Nafarroak elkarren beharra dute".

***Oharra: Bertsio luzea webgunean**



www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainhoa Etxeberria Pikabea
gak@gomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearena Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernu

GUTUNA

Jostailu zahar bati jarriak

SAATS KARASATORRE MARTINEZ

Aurreko launbetien, otsailak 22, haur guziek jolasteko Etxarriko parke bati en gihuken jostailu zahar bat mile pusketan hautsiik agertu zan. Hortik bertso sortatxo hau:

Taldeko euforia hartuta aitzaki larunbat iluntzea berez da basati; bilakatu zintuzten puska, zabor, zati... hauek bertso berriak traktore za(ha)r bati.

Zaborraren postean hiru egun pasa eta, nola ez zinen jostailu eskasa, kendu genizun hautsa, garbitu lokatza... aberastu zenezan umeen jolasa.

Pedalei eragiten sutsu, jo eta ke, palan belarra sartzen zenbat borondate... parkean bizi izan zara astez aste; jolasa zu haustea bihurtu den arte.

Batetik bolantea, bestetik pedala, eserlekua hemen bi puskatan pala apurtu zaituenak, merezi bezala, daukagun amorrua ulertu dezala.

Parkean utzi eta jolas dezatela. Askok esaten zuen gordetu, bestela, hautsi eginen dute, begira, kauenla! Penarik handiena, arrazoi zutela...

Gorde izan bagenu etxean akabo, erabiliko ez zen traste bat gehiago. Zertan balio duen jakin nahian nago denonak norbaitenak baino gutxiago.

*Doinua: Bizitza diot mutil

Lakuntzan 763.000 euroko inbertsioak

Joan den urteko aurrekontuetan jasotako hiru lanetatik bi egiten ari dira eta bestea uda aldean eginen da. Aurtengo aurrekontuan inbertsio nabarmenik ez dago. Obretarako dirulaguntza eskaera prestatzen ari da

LAKUNTZA

Lakuntzako Udalak 1.292.091,98 euroko aurrekontua du aurten, aurreko urtean baino 27.512,02 euro gehiago dira. Oihane Uribeberria Garmendia alkateak azaldu duenez, "igoeraren arrazoia da, besteak beste, lur ondaren kontribuzio zerga berrikusi delako. Balorazio txostena 2022an onartu zen eta legearen arabera zerga %0,25 eta %0,50 artekoa izan beharko da. Lakuntzan %0,16koa denez, aurten eta heldu den urtean zerga hori %0,045 igoko dugu, legeak eskatzen duen gutxienez iristeko".

Alkateak azaldu duenez, "aurtengo aurrekontuan ez dago inbertsio handirik baina 762.931,84 euroko balioa duten hiru lan eginen dira aurten: eskoletako inguratzaile termikoa hobetu (306.734,99 euro), plazako estalpea (238.000 euro) eta Sakanako Mankomunitateko teilatuaren konponketa (218.196,85 euro). Hiruak joan zen urteko aurrekontuan jasota zeuden. Atzeneko biak hasita daude. Uribetxeberriak jakinarazi duenez, plazako estalpeko egitura martxo hasieran jartzen hasiko dira. Udaberriaren egiten den azokarako prest nahiko lukete. Eskolako lanei dagokionez, emateko deialdia egin du udalak. "Lanek bost hilabe-



Martxo hasieran hasiko dira estalpeko egitura jartzen. ARTXIBOA

teko iraupena izanen dute. Eskola jarduerari ahalik eta gutxien eragitea nahi dugu. Sikiera udan leihoak aldatu nahiko genituzke", azaldu du alkateak.

Parkea eta basoa

Tirolina jarrita dago eta futbolero ateak tokiz aldatu ditu udalak, parkearen iparraldean jarriz, luzeran beharrezko parkearen zabalera hartuz. "Hurrengo lanak zehazten ari gara orain. Esate baterako, bankuak eta mahaiak zenbat eta non jarri, zuhaitzak non eta zenbat landatu... Aurten

zati bat eginen dugu eta gelditzen dena 2026an. Lanen diru balorazioa egiten ari gara", aurreratu du Uribetxeberriak. Egitekoen artean daude irisgarria izanen den porlanezko bide zirkularra, plazatxo bat, futbol zelaiaren ondoan sareak jartzea baloioak etxeetara ez joateko, boleibol zelaiak egitea... Lanen batzuk azolanean eginen dira, beste batzuk enpresek eginen dituzte. Bide batez jakinarazi du udalak langabe bat kontratatuko duela urte erdirako. Apirilean hasiko da lanean.

Basoari dagokionez, alkateak azaldu du udalak basoan konponketa eta garbiketa batzuk egin dituela, batere dirulaguntzarik gabe. Aurtengo aurrekontuan igo den sailtako bat baso eta bide konponketena da, 7.000 euro gehiago dituen. Gaineratu duenez, 2024-2025 baso antolamenduko planari jarraituz, Urriamendi, Usotegieta eta Soitxiki parajeetan pagoz osatutako aprobetxamendua saldu dio Maderas Zubillaga enpresari. Hark 2.273,3 m³ aterako ditu eta udalak 68.808 euro (BEZik gabe) jasoko ditu.

Azterketak

Gobernuak Toki Azpiegitura Planeko dirulaguntza deialdira zer lan aurkeztu aztertzen ari da udala. Sareak eta kaleetako zorua berritzeko lanak ziurrenik. Bestalde, kultur etxean jarritako eguzki plakekin eraikina bera, eskola eta udaletxea argindarrez hornitzen ari da udala. "Zer emaitza ematen dituen aztertuko ditugu eta, horren arabera, baloratuko dugu beste eraikinetan jarri edo ez", azaldu du alkateak. Beste eraikinak eskolak eta igerilekukoak izanen lirirateke.

Bestalde, azaroaren 8an mustuzen liburutegian "beti jende mugimendua" dagoela jakinarazi du Uribetxeberriak. "Nafarroako Liburutegi Sareak 90.000 euro eman zizkigun katalogo berritzeko 2024an. Oraintxe liburutegiak eskaintza interesgarria du", ziurtatu du alkateak. Gaineratu duenez, "Sarean sartzeko pausoak ematen ari gara, hitzarmena lehenbailehen sinatu nahiko genuke. Arbizuren moduko lan-kidetzak programa bat izan nahiko genuke. Hala, Sarearen programetan parte hartzeko aukera genuke, eta katalogo berritzeko laguntza jasoko genuke".

Uhartek herri larreen erabilera enkantera aterako du

Ubertearrak eta ubertearrak ez diren abeltzainek eskaintza egiteko aukera izanen dute

UHARTE ARAKIL

Uharteko Arakilgo Udalak herri larre batzuk emateko deialdia egin du. Aurretik bitan egin du, baina hutsik gelditu direnez, udalak erabaki du larre horiek emateko deialdi irekia egitea.

Hau da, Uharteko eta herrikanpoko abeltzainek aurkezteko aukera izanen dute. Enkantea martxoaren 12an, asteazkenean, 13:30ean eginen da udaletxean. Enkantea arautzen duen plegua udaletxean dago.

Lehen lotea Ardanzarreta, Iresitu eta Arzeleta dermioetako larreak hartzen ditu. Hau da, autokarabanendako gunetik Arruazuko mugarainoko. Sargaitz poligonotik gora du sarbidea. "Duela bi urte sasiz garbitu ziren eta ur hartunea badu", azaldu du Txomin Uharteko Baleztena alkateak. Guztira 79,62 hektarea dira, 2.845,07 euroko balioa dutenak. Bigarren lotea Berastegi dermioan dago, Irañetako mugan, eta 5.678,97 m²-ko azalera du. Bere balioa 125,04 eurokoa da.



Lehen lotean goi tentsioko linea dago.

Etxebizitzen kontura "kezka eta haserrea"

Arbizuko Udalak jakin du Nasuvinsak egitekoak zituen alokairurako bost etxeak "oraingoz" ez dituela eginen, ez omen du dirurik. Udala egoera berean dauden beste toki erakundeekin harremanetan jarriko da

ARBIZU

Arbizuko Udalak eta Nafarroako Gobernuak Nasuvinsa enpresa publikoak hitzarmena sinatu zuten 2022ko irailean. Ondorioz udalak San Joango bidea kalean duen 407,1 m²-ko lursaila Nasuvinsaren esku utziko luke eta hark han gazteei zuzendutako alokairuko bost etxebizitza eginen lituzke. Etxebizitzarako sarbidea erraztuz, udalaren asmoa da gazteak herrian bizitzeko gel-ditzeko aukerak eskaintzea.

Etxebizitzaren proiektua 2023an egin zen. Nasuvinsak eraikuntza lanak 2023ko akaberan hasi nahi zituen, ondoren 2024ko udaberriera atzeratu zuen. Baina lanak



Nasuvinsak bost etxeak eraikitzeko udalak utzitako lursaila. ARTXIBOA

ez dira hasi. Francisco Javier Razkin Flores alkateak azaldu duenez, "behin baino gehiagotan galdetu dugu proiektuaren egoeraz eta obren atzerapenez, baina orain arte ez digute erantzunik eman. Eta orain jakin dugu obra ez dela, oraingoz behintzat, eginen". Nasuvinsatik argudiatu dutenez, "ez dago dirurik, eta eskaera asko jaso dira".

Razkinek haserre hitz egin du: "gobernua herri handietarako etxebizitzaren inguruko planak egin eta gauzatzen hasita da: tentsio herrien izendapena, Sarrigurenen 4.000 etxebizitza eraikitzeke plana... Baina 5.000 biztanletik beherako herriondako ez dago planik nonbait". Arbizuko alkatearen iritziz "gobernua, praktikan, herri txikietatik herri handietara joateko politikak sustatzen ari da. Bitartean, landa eremuak ez husteko, ustezko jardunaldiak antolatzen dituzte". Razkinek ziurtatu duenez, "etxebizitza politika eraginkorrik gabe, herri txikiak husteru doaz poliki-poliki".

Hori dela eta, Arbizuko Udala "gure egoera bertsuan dauden beste herri batzuekin harrema-

netan jarriko gara, denok batera ekimen bateraturen bat antolatzeko proposamenarekin. Gure ustez, gutxienez, haserre hau publiko egin beharko genuke hedabideetan, Gobernuari presioa egiteko. Horretaz aparte, beste ekimen bateraturen bat adostuko bagenu, ederki". Razkinek nabarmendu duenez, "dena beharko dugu herri txikiok, gure eskaerak entzunarazteko".

Gonbidapena

Arbizun 2020an 60 etxebizitza hutsik zeuden. Udaletik etxe horien jabeek zuzendu zaizkie: "kontura daitezen zein garrantzitsua den etxe hutsak alokatzea gazteak, batez ere, bertan bizitzeko". Etxe hutsa duen jabeak alokatzeko bi aukera ditu. Bata da bere kabuz egitea. Bestea Nasuvinsaren alokairurako poltsaren bidez etxebizitza alokatzea. Aukera horren alde egiten dutenek bermatuta dute hileroko dirusarrera. Gainera, maizterrek etxean kalteren bat sortuko balute Nasuvinsa arduratuko litzateke hura konpontzeaz. Alokairuan bizi nahi dutenen errolda ere badu Nasuvinsak.



ZUREKIN BATERA
IREKITZEN DUGU
EGUNERO,
zure negozioa
bultzatzeko

Susperregi Berria
kortse-denda
1930az geroztik

LOKALIA

Dena tokiko merkataritzarako.
Dena tokiko merkataritzarentzat.

laboralkutxa.com/eu/lokalia

LABORAL Kutxan geure aletxoa ipini nahi dugu,
tokiko merkataritzak gure herri eta hirietako
aktiborik handienetakoa izaten jarrai dezan.

LOKALIA laguntzeko jaio da, eta irtenbide integrala
eskaintzen du, gauzak errazteko, lasaitasuna
emateko eta saltoki txikien ezaugarri guztiak
sendotzeko.


LABORAL
kutxa

Sakana berdinzaleagorako bost konpromiso

Ibarreko erakundeen iritziz, "genero berdintasuna oraindik lortu gabe dagoen justizia sozialeko auzi bat da. Legeek eta araudiek berdintasun formala aitortu arren, berdintasun erreala ez da lortu, egunerokoan oztopo nabarmenei aurre egin behar baitiete"

SAKANA
Emakumearen Eguna dela eta, udalek eta Mank-ek *Desberdinkeria errealitate, justizia lortze* erakunde adierazpena onartu dute. Haien iritziz, "ezinbestekoa da aurrera egitea emakume guztien lana aintzat hartu eta baloratuko duen gizarte baterantz, erantzukidetasuna eta berdinta-

sun politikak sustatu eta berdintasun erreala eragozten duten oztopoak ezabatuko dituen gizarterantz". Gaineratu dutenez, "Fake news edo albiste faltsuak eta berdintasuna jada lortua dela baieztatzen duten mito antifeministak atzean uzteko garaia da".

Aldi berean, erakunde, enpresa eta herritarrei eskatu diete

"arduraz jokatzeko, oraindik ere gure gizartean irauten duten genero arrakalak desagerrarazteko". Bide horretan bost konpromiso hartu dituzte. Lehena, erantzukidetasuna sustatzeko sentsibilizazio programak eta kanpainak diseinatu eta abian jartzea. Horietan gizon-emakumeak neurri berean inplikatu eta interseksionalitatea kontuan hartuko dituzte, egoera zaurgarrienetan dauden kolektiboen behar espezifikoak erantzuteko.

Bestalde, erakundeetako generoari loturiko soldata arrakalaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko neurriak garatuko dituzte. Aldi berean, lan hitzarmenek eta



Toki erakundeek mugimendu feministaren deialdietan parte hartzera deitu dute.

akordioek emakumeen lanaren balorazio justua islatzen dutela bermatuko dute, bereziki sektore feminizatuetan. Hirugarrenik, ordaindu gabeko lana bizitzaren iraunkortasunerako ardatz nagusi gisa aitortzea eta baloratzen duten tokiko politikak ezartzea, eta guztiendako zerbitzu publiko unibertsalak bermatzea.

Toki erakundeek konpromisoa hartu dute genero berdintasu-

nari buruzko etengabeko preskakuntza eskaintzeko beraien erakundeetako langile guztiei, eta politika publikoak eta administrazio erabakiak genero ikuspegiarekin aplikatzea. Azkenik, mugimendu feministak arlo horretan egindako ekarpenak eta lana aitortzeko konpromisoa hartu dute, eta antolatzen dituzten ekitaldi eta kontzentrazioetan parte hartzera gonbidatu dute.

Batu indarrak herri eta jendarte feministarako

Mugimendu feministak aliantzak eraiki eta saretzeko deia egin du "oldarraldiz beteriko garai hauetan". Ibarreko manifestazioa martxoaren 7ra aurreratu dute, 'Faxismoaren kontra, ausardia eta aliantza feministak!' lelopean eginen da

SAKANA

Hiru ardatz hartu ditu mugimendu feministak Emakume Langilearen Nazioarteko egunerako. Aurrena, indarkeria matxista da. Azaldu dutenez, "emakume* trans eta bollerok jasaten ditugun eraso eta menderakuntza egoerekin amaitu beharra dago. Era-soak, soldata arrakala, egiten dugun ordaindu gabeko lana, kristalezko sabaiak... Indarkeria dira eta sistema betikotzeko ezinbesteko tresnak dira".

Hurrena, krisi ekosozial "globala" da. "Kapitalismoak, patriarkatuak eta kolonialismoak bere fase neoliberalen eragindakoa da, sustrai sakonak dituen. Bi-

zita akabatzen duen sistema baten aurrean gaude: bai pertsonen bizitzak, bai natura bera", azaldu dute. Salatu dutenez, "natur baliabideak eta lurra bera erabat pribatizatuta daude eta hazkunde amaigabearen logikak, planetaren mugak ez ditu kontuan hartzen. Hemen ere, negozioa eta merkantilizazioa dago beste ezereen gainetik". Gaztigatu dutenez, "lurren pribatizazioa eta ustiapena ez da ausaz gertatzen. Iparraldeko herriek hegoaldekoak kolonizatzen jarraitzeko ezinbesteko tresna da, eta Euskal Herriatik ere badugu ardura hori salatzen eta horrekin bukatzeko ardurak exijitzeko".

Atzeneko ardatzarekin "egungo sistema arrazista eta koloniala betikotzen dituzten migrazio politikak" salatu dituzte. Mugimendu feministako kideek aldarrikatu dute "atzerritartasun legearekin bukatzea". Gaineratu dutenez, "premia borrokatu eta aldarrikatu behar ditugu migrazioaren kontra ematen ari diren jarrera arrazistak eta segurtasunaren izenean polizia gehiagoren beharra aldarrikatzen dituztenen diskurtsoak, zeinak arrazakeria areagotzen duten". Horiek aldarrikatuko dituzte martxoaren 8an. Ibarreko manifestazioa martxoaren 7an izanen da, Altsasun.



KOLABORAZIOA

GALDER GONZALEZ LARRAÑAGA

Algoritmoa

Mundua eskumarantz doa, eta ez pentsa Sakanan horretaz salbu gaudenik. Mundua eskumarantz doa, eta ez da ausaz gertatzen den prozesua: pertsona oso indartsuak daude helburu hori lortzeko bultzatzen.

Ziur noizbait ikusi duzula dokumental bat Bigarren Mundu Gerraren aurretik nazismoa boterera nola heldu zen kontatzen dizuna. Maiz, nazismoarekiko kritikoa agertzen badira ere, nolabaiteko mezu supremazista, miresmenekoa, izaten dute atzetik: ingeniari onak ziren, komunikatzaile bikainak... gutxitan kontatuko digute, ordea, zenbat diru jarri zuen kapital handiak euren alde, zenbat lagundu zuten Alemaniako enpresek hala izan zedin. Nork finantzatu zuen Auschwitz Deutsche Bank ez bazen izan? Nork eman zion kanpaina egiteko hegazkina Hitlerri Lufthansa ez bazen izan? Pizzak egiten dituen Dr. Oetker enpresak janaria zein munizioak eman zizkien naziei, gerra presoek egindako janari zein munizioa. Uniformeak egin zizkien Hugo Bossek; kontzentrazio esparruak kudeatzeko txartelak IBMk; Zyklon B gasa egin zuen Kruppek; botikak "frogatu" (arin esateagatik) zituen Bayerrek; lan esklaboaz baliatu ziren Porsche,

Mercedes-Benz, Ford, Volkswagen edo Siemens. Bai, kapital handiak arazorik gabe besarkatu zuen nazismoa eta eskuin muturra.

Orain hilabete ikusi genuen Donald Trump eskuin muturreko autokrataren kargu hartze ekitaldia. Lehen lerroan gaur egungo enpresa handienak, euren artean Meta (Facebook, Instagram, Whatsapp), Alphabet (Google, YouTube), Apple eta, noski, Elon Musk (X, SpaceX, Tesla...) zeuden. Guztiek, publikoki esanda, milioiak ordainduta bertan egoteagatik. Inoizko kapital kontzentrazio handiena, denak batera, eskuin muturra bultzatzen jarraituko dutela publikoki adierazten.

Facebookek, Googlek edo X-ek duten negozio eredua ez da, hala ere, IBM edo Mercedes-Benzena, bestelakoa. Guk bideo bat ikusi edo zerbait partekatzen dugunean sortzen dugun lorratza da negozio eredua. Monetizatu daitekeen zerbait bilakatu dituzte gure iritzi, harreman sare eta kontsumo ohiturak. Eta hor sartzen da maiz aipatzen den hitz bat: algoritmoa. Zer da, baina algoritmoa?

Wikipedian begiratu dut, oraindik kontrolpean ez duten ezagutzaren eremu horretan: "Matematikan, informatikan, hizkuntzalaritzan eta beste



zenbait esparrutan, algoritmo bat ongi definitutako instrukzio sekuentzia finitu bat da, ordenagailuz martxan jar daitekeena, normalean, problema bat urratsez urrats ebazteko edo konputazio bat kalkulatzeko." Bai, algoritmoa hori da, baina hemen beste esanahi batekin ari gara erabiltzen. Algoritmoa da erabakitzen duena guri zein bideo, zein mezu, zein produktu erakutsi behar digun. Algoritmoa da darabilgun musika aplikazioan "zuretzako" gomendatzen digun hori, YouTubeko bideo baten ostean beste bat gomendatzen diguna, eta eztabaida sutsuetan sartzera animatzen gaituen hori. Algoritmo sofistikatu

garaia da gurea, gainbalioaz gain gure arreta lortzeko diseinatutako ekuazio konplexuena.

Mundua eskumarantz doa, itsusten ari da, eta ez da ausaz gertatzen ari den zerbait. YouTuben kontu berri bat egiten baduzu, laster dituzu hor youtuber misogino eta arrazistak. Pare bat ikusten badituzu, akabo: algoritmoak bere burbuilan sartuko zaitu eta hortxe egongo zara ateratzea lortzen duzun arte... lortzen baduzu. TikTok eskuin muturreko posizioak biderkatzen ari dira, eta gure nerabeen artean zabalitzen. X-en "Zuretzako" atala begiratzen baduzu, denak dira zuk eztabaidatuko dituzun gaiak, haserrea sortzeko

makina perfektua. Eta Facebooken ere antzeko, eduki polemikoen, eztabaida gehien sortzen dutenak, gorago erakutsiko dizkizu makinak.

Hilabete igaro da Muskek boterea hartu zuenetik. Trump golfean jolasten egon den tartean, ikusi dugu apartheid bultzatzen, ikusi dugu agur nazia egiten modu irekian, kopiatu dio agur nazi hori Mexikoko eskuin muturreko idoloa den Verástegui abizeneko batek (ziur arbasoak ez ditugula oso urrun), VOXen eta Alemaniako AfDren alde egin dute, eta debekatu dute AEBn "ekitatea", "inklusioa" eta "aniztasuna" hitzak (eta euren eratorriak) dituen edozein politika, ekimen, jarduera egitea. Alemanian egindako ikerketa batek "Zuretzako" tresna behatu du guztiz berriak ziren kontu eta gailuak erabilia: TikTokek erakutsitako %74, Xek erakutsitako %72 eta Instagramek erakutsitako %59 eskuin zein eskuin muturrekoa zen, eta tarte handi bat AfD alderdiaren aldekoa.

Mundua eskumarantz doala idatzi du lehen esaldian. Ez, ez da horrela. "Munduko aberatsenek mundua eskumarantz eramaten ari dira" da esaldi zuzena. Euren kontrolpean dauden algoritmoak baliatuz, besteak beste.

DUELA 25 URTE...



Txantxetako ezkontza

Lakuntzar neska-mutil talde bati txantxetako ezkontza bat ospatzea otu zitzaion. San Saastin ermitan "ezkondu" zuen bikotea "epaile" batek. Jakina, ez zen ez arrozik ez aureskurik falta izan. Auzate txiki baten ondoren Arruazuko ostatuan bazkaldu zuten. Herriko Lagun Artea tabernan musikari baten doinuak lagun, parranda ordu txikiak arte luzatu zen. Ezkontzara "gonbidatuta" ez zeudenak ere bat egin zuten ospakizunarekin, eta giro bikaina sortu zen.

KINTOAK

UHARTE ARAKIL

OTSAILAK 28 Ostirala

10:00 Gosaldu.
10:30 Kinto eskea enpresetan. Segidan eskolara bisita, ihote ospakizuna baitute.
15:00 Kinto bazkaria.
17:30 Kinto eskea Itxesi eta Zerradoa auzoetan.
21:30 Kinto afaria, eta parranda.

MARTXOAK 1 Larunbata

09:30 Gosaldu.
10:00 Kinto eskea herrian.
12:30 Ihote giroarekin bat eginen dute.
15:00 Kinto bazkaria.
18:00 Kintoek ihote kalejiran parte hartuko dute.
22:00 Kinto afaria; kinto zahar eta gazteak gonbidatuko dituzte. Ondoren, parranda.

LAKUNTZA

MARTXOAK 3 Astelehena

10:00 Kintoak eta kinto gazteak, baserritarrez jantzita, plazan elkartuko dira. Trikitilarien eta bonboaren laguntzaz enpresetan eta herrian zehar diru eskean ariko dira.
12:00 Gosaria, kinto baten etxean. Ondoren, berriro diru eskean ariko dira.
15:00 Bazkaria Kale txikin.
18:00-21:00 Kinto eskea.
21:00 Afaria Sorgiñak tabernan.
24:00 Tolosako ihoteetara.

MARTXOAK 4 Asteartea

11:00 Gosaria, beste kinto baten etxean. Ondoren, diru eskean berriro herrian zehar.
15:00 Bazkaria Kale Txiki Tabernan. Ondoren, poteoa.
18:00-21:00 Kinto eskea eta poteoa.
22:00 Afaria Sorgiñak Tabernan.
23:30 Altsasuko ihoteetara.

ARBIZU

OTSAILAK 28 Ostirala

22:00 Afaria, Olatzean.
23:30 Parranda, Argibidea elkartean.

MARTXOAK 1 Larunbata

Ihote ospakizunarekin bat eginen dute kintoek.



ARTXIBOA

UHARTE ARAKIL Seikote gazte batek osatzen du aurtengo kinto segizioa: Ainara Altuna Joaquim, Iradi Lakuntza Garatea, Ainara Astiz Mateo, Oihan Gorriti Astiz, Enaitz Arregi Retegi eta Nahia Ihaben Remirez. Nabari-nabaria da non dabilzan, hasteko koloretako ileordeak eta arropa zaharrak jantziak dituztelako. Gainera, bonboa dute aldean. Baita ospakizunak irauten duen bitartean Maddi Lakuntza trikitilaria eta Mikel Zelaia akordeoi jolea ere. Udalak utzita, kintoak mojek erabilitako eraikinean eginen dute lo hiru egunetan. Eta ospakizuneko lehen bi gaueko parranda han izanen da.



UTZITAKOA

LAKUNTZA Aurtengo Lakuntzako kintada hamaika gaztek osatzen dute: Ane Arraiza Ondarra, Amets Satrustegi Bakaikoa, Kitzya Valverde Felix, Lide San Sebastian Arraiza, Urritz Alegre Gil, Maddi Gastaminza Betelu, Ametz Lizaur Arrieta, Alain Razkin Andueza, Aitor Aldunate Andueza, Kemen Zabala Ganboa eta Iker Añazco Carrion. Festako protagonistak ere hamabost kinto gazteak izanen dira. Guztiak ere baserritarrez jantzita ibiliko dira kinto eskean, bi egunetan trikitilariak lagun dituztela. Ospakizun egunetako gosariak non egin kinto segizioko kideen arteko zozketa bidez aukeratzen dute.



UTZITAKOA

ARBIZU Hamabost gaztek osatzen dute Arbizuko aurtengo kintada: Irati Igoa Reparaz, Olatz Reparaz Gartzandia, Izarne Mendinueta Arretxe, Diana Manjon Leiza, Maialen Nuñez Flores, Aizeti Baztarrika Lizarraga, Eneko Reparaz Anabitarte, Nahia Iza Mozo, Ane Berastegi Jaka, Aintzira Lizarraga Lizarraga, Eider Murigarren Sarasa, Manu Reparaz Urroz, Izadi Perez Sanzol, Berat Izagirre Mendinueta eta Haizea Urbe Zabala.



UTZITAKOA

ETXARRI ARANATZ Etxarri Aranazko aurtengo kintada 25 gaztek osatzen dute: Eider Ibañez de Opakua Ormazabal, Julene Orella San Martin, Artzai Karasatorre Sureda, Jose Migel Begiristain Medina, Enara Chueca Etxeberria, Hiart Labairu Zubeldia, Iyad Sour El Mecherafi, Miteku Jaka Goikoetxea, Markel Razkin Goikoetxea, Iraia Moro Benjumea, Iker Tello Coyago, Amaiur Martinez de Ordoñana Albarracin, Leire Igoa Unzilla, Enaitz Begiristain Ugalde, June Senar Ormazabal, Alain Bakaikoa Artola, Maddi Garmendia Castellano, Elene Jaka Goñi, Beñat Gomez Maiz, Lur Sasiain Iraurgi, Ane Ijurko Goikoetxea, Maren Bergara Nazabal, Julen Jauregi Lizarraga, Ibai Arana Zabala eta Maia João Goñi.

MARTXOAK 2 Asteartea

10:00 Kinto eskea etxez etxe, baserritarrez jantzita, trikitaliak lagunduta eta bonboa joaz. Dirua ematen dutenei pastak eta moskatela eskainiko dizkiete.
15:00 Bazkaria, Baxerrin. Ondoren, poteoa.
21:30 Afaria Juaniton.
24:00 Tolosako ihoteetara, parrandara.

MARTXOAK 3 Astelehena

15:00 Bazkaria, Izarran. Ondoren, poteoa.
21:30 Afaria, jubilatuko elkartean.
24:00 Tolosako ihoteetara, parrandara.

MARTXOAK 4 Asteartea

17:00 Haurrendako jolasak, plazan.
17:45 Txokolate jana.
20:00 Aittun handiya eta amiñ txikiya, plazan. Ondoren, txatarrak.
21:30 Herri afaria, Aldabide elkartean, kintoek antolatuta.
24:00 Altsasuko ihoteetara, parrandara.

ETXARRI ARANATZ**MARTXOAK 1 Larunbata**

12:30-13:30 Jokoak, plazan.
13:30 Auzatea, plazan.

MARTXOAK 3 Astelehena

21:30 Afaria, Aritzalkon.
23:30 Tolosako ihoteetara.

MARTXOAK 4 Asteartea

10:00-14:00 Baserritarrez jantzita, ttuturrue buruan, kintoak etxez etxe eskea eginen dute, Txorongo txarangak lagunduta.
13:30 Txerrikumearren zozketa, plazan.
15:00 Bazkaria, Bordan.

Amaya
OGITEGIA
TURKIN 1964- GERTUTIA
amayaokindegia.eus
@panesamayaogiak

IHOTEAK



IRURTZUN

OTSAILAK 28 Ostirala**HERRI INAUTERIAK**

Goizean, inauteriak, Atakondoa ikastetxean.

18:30 Kalejira: musika eskolako fanfarrearekin, Iskidiko pertsonaia mitologikoekin, joaldunekin eta Altsasuko Momotxorroekin, Iskidik antolatuta. Ondoren, txistor jana, Gernikako plazan.

00:00 Etxeko DJa, Larrazpin.

MARTXOAK 1 Larunbata

12:30 Galtzagorri txarangarekin kalejira.

14:30 Inauteri bazkari herrikoa, Erga Larreak-ek antolatuta,



eskolako jantokian.

17:00 Galtzagorri txarangarekin kalejira.

18:00 Mozorro kontzentrazioa, plazan.

18:30 Mozorroren desfilea eta



MAIALEN HUARTE ARANO

IHABAR Jendetza hurbildu zen asteburuan Ihabarko inauteriak ezagutzera.

**MARTXOAK 3-7**

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Prentsaren azalak

10:20 Albistek eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin

14:00 Errepikapena

Hizketan

Martxoak 3 Ihauteiak

Martxoak 4 Matrikulazio kanpaina Eduardo Aldasororekin

Martxoak 5 Bertso saioa (*Bertsoa.eus*) eta Mikel Lasarte eta Jon Irañeta

Martxoak 6 Asier Fernandez igerilaria

Martxoak 7 Agenda berezia eta Eider Beobide, Rifqa: honengatik egiten dugu dantza errezitaldia

musika, plazan.

Eguraldi txarrarekin musika Barazkigunen.

23:00 Teknogaua: Mutter, Anderetx, Gordon eta Bendiak, Larrazpik antolatuta, Larrazpin.

MARTXOAK 2 Igandea

18:00 *Azken fakirra* familiarteko euskarazko antzerkia, kultur etxean (sarrerak: 3 euro).

HIRIBERRI ARAKIL**MARTXOAK 1 Larunbata**

13:00 Mozorroren topaketa eta bermuta.

Ondoren, herri bazkaria, Txitera elkartean.

18:00 Aitittarko erre eta haren inguruan dantzatu, plazan.

Oharra: mozorroren gaia musikariak da.



MAIALEN HUARTE ARANO

IHABAR Moxorroak, Landarra, Ninia eta Aitezarko izan dira nagusi.

UHARTE ARAKIL**MARTXOAK 1 Larunbata**

Eguerdian, mozorrotutako kuadrillak aterako dira. Ondoren, elkartean herri bazkaria egingen dute.

18:30 Mozorro kalejira egingen dute, gurdi musikatuarekin.

ARRUAZU**MARTXOAK 1 Larunbata**

13:00 Bermuta, elkartean.

15:00 Herri bazkaria, elkartean.

**MARTXOAK 2 Igandea**

17.30 Etxez etxe puska biltza.

19:00 Bildutakoarekin merendu-afaria, elkartean.



MAIALEN HUARTE ARANO

IHABAR Hartzak eragin zuen izua herrian.



MAIALEN HUARTE ARANO

IHABAR Landarraren negar artean erre zuten Aitezarko amaieran herriko plazan.

21:00 Zezensuzkoa.

MARTXOAK 4 Asteartea

ZATAMARROAK

17:00 Txokolate jana eta musika, plazan.
19:00 Sardina jatea, plazan.
Arratsaldean, zatamarro begi gorri, urtien behin etorri!

PERTSONAIAK:

Zatamarroak: Zakuz jantzita doaz, gerrian joarea daramate, aurpegia trapu batez estalia eta buruan txano bat daramate; zenbaitek koloretako zintekin apainduta. Eskuan zigorra eramaten dute, eta zatamarro begi gorri, urtian behin etorri! kantatzen dutenen atzetik doaz.



ARBIZU

MARTXOAK 1 Larunbata

12:30 Aatea, plazan.
13:15 Mozorro desfilea.
15:00 Bazkaria, frontoian. Tiketak: helduak 25 euro eta haurrak 13 euro; Kiroldegian, Jauniton eta liburutegian.
19:00-21:00 DJ-a, Argibidea elkartearen.

MARTXOAK 2 Igandea

10:00 Kintoak diru eske.

MARTXOAK 4 Asteartea

12:00 Kintoak eskean.
17:00 Haurrendako jolasak, plazan.
17:45 Txokolate jana.
18:00 Herriari bueltan dantzariekin.
20:00 Aittun Haundiya eta Amin Ttikia.
21:30 Kintoen afaria, Aldabiden.



UNANU

MARTXOAK 2 Igandea

MAMUXARRO GAZTEAK

16:45 Mamuxarro eta muttu gazteak eskoletatik ateratzen dira, eta argazkietarako tarte bat egonen da. Ondoren, jendearen atzetik hasiko dira.
17:45 Gazta, txistorra eta ardoa auzatea, elizaren atean.
Ondoren, mamuxarroak etxez etxe puska biltza, akordeoiarekin.
21:30 Puska biltzan jasotakoarekin herri afaria, Denok bat elkartearen.

MARTXOAK 4 Asteartea

MAMUXARROAK

16:45 Mamuxarro eta muttu helduak eskoletatik ateratzen dira, eta argazkietarako tarte bat

egonen da.
Ondoren, jendearen atzetik hasiko dira.
17:45 Gazta, txistorra eta ardoa auzatea emanen dute. Gero, mamuxarroak etxez etxe puska biltza joanen dira.
21:30 Herri afaria, Denok Bat elkartearen.

PERTSONAIAK:

Mamuxarroak: Zuriz jantzita, gerriko beltz edo gorria daramate, kriskitinak soinean, eta aurpegian metalezko kattola. Eskuan makil luzea eramaten dute, eta jendearen atzetik korrika ibiltzen dira zigorra emateko prest. Jendeak Mamuxarro xirri, xarro, zer emango dizut, zazpina uzker afarirako, zata begi gorri, urtian behin etorri esaldiarekin zirikatzen ditu.

Muttuak: Kolore biziko soinekoarekin edo gonarekin jantzen dira, eta ez daramaten kriskitinik; mamuxarroei jo beharreko jendearen berri ematen diete. Eskuetan zigorra daramate ere.



LIZARRAGA

MARTXOAK 1 Larunbata

13:00 Elkartearen elkartu, herritik buelta emateko.
14:30 Bazkaria, elkartearen.
17:30 Elkartetik atera eta kalejira.

Oharra: Euskal Herriko herri ihoteetako pertsonaiekin mozorrazera gonbidatu dituzte arbazuarrak: moxorroak, txatarrak, Arbazuko Lopeto...

LAKUNTZA

MARTXOAK 1 Larunbata

12:30 Zarata txarangarekin kalejira, Lakuntzako Herri Eskolak antolatuta.
13:00 Auzatea eta musika, plazan.
15:00 Bazkari autogestionatua, kultur etxean.
18:30-21:30 Boletus Rumberus DJa, kultur etxean.

BIKAIN GARAJEA

Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta furgoneta saila

948 460 037 Arbizu

EgurRE

Kalitatezko egurra eta pelleta

ETXEKO ATERAINO

662 11 77 45

FLORES

Utzuabar industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra

Juanito TABERNA

Etxeko janaria eta bertako produktuak zuregandik gertu

Instagram: @juanito_taberna
948 922 167 - 686 898 902
Fernando Urkila kalea, 19
31839 ARBIZU

IHOTEAK



ETXARRI ARANATZ

MARTXOAK 1 Larunbata**ZALDUNIYOTE EDO HIRI IHOTEA**

12:30 Jolasak haurrendako, kintoek antolatuta.

13:00 Etxarri Kantuz, herrian zehar. Auzatea, Derry, Xapatero eta Leku Ona tabernen eskutik.

19:00 Mozorro txapelketa, EGAK antolatuta.

20:00-22:30/23:30-02:00

DJ Txumasketa.

Oharra: Mozorro anitez jantzi.

MARTXOAK 4 Asteartea**ASTEARTIYOTE EDO HERRI IHOTEA**

10:00-14:30 Txorongo txarangarekin kalejira, kintoek antolatuta.

12:00 Txondatatxondai dibertsio eta jai ikuskizun musikatua eta parte hartzailea.

13:30 Txorongo txarangaren kontzertua, kintoek antolatuta, plazan.

Txerrikume eta arkume errifaren zozketa, kintoek antolatuta.

17:30-21:00 DJ Mikeltxi.

Txokolate jana, plazako estalopean.

19:00 Kixkimau Pinttoren segizioa kalez kale, txistulari eta Kixkimau Pintto erraldoiarekin, kintoen eskutik. Ondoren, Kixkimau Pinttoren erretzea, EGAK antolatuta, plazako zelaian.

Oharra: Txatarrez eta trapu zaharrez jantzi.



BAKAIKU

MARTXOAK 1 Larunbata**KAMARROAK**

11:30 Kamarro txikien kalejira.

14:30 Bazkaria, elkartean.

17:30 Kamarroen kalejira, elkartetik.

18:30 Sua.



UTZITAKOA

ZIORDIA Larunbata, zomorroak, pezkinak eta artzainak Ziordiko kaleetara atera ziren.



UTZITAKOA

ZIORDIA Zortzikoa dantzatu eta panpina erre zuten herriko plazan.

PERTSONAIK:

Kamarroak: Soinean arpilerak, farak, narruak eta abar daramatzate. Asko odolez zikintzen dira, eta batzuek aurpegia zapiz estaltzen dute, beste batzuek buruan txanoak eramaten dituzte edo edozein animalia burrezurak edota adarrak. Eskuetan Sakanako zigor luzeenak dituzte, bizpahiru metrokoak, zaparra deitutakoak. Gurdy bat eta bi kamarrok tira egiten dioten goldea eramaten dute, ereitea irudikatzen duena.



ITURMENDI

MARTXOAK 1 Larunbata**HIRI INAUTERIAK**

12:00 Poteoa.

14:30 Herri bazkaria, Aitzkoarren.

17:30 Kalejira txarangarekin.

Ondoren, txokolate jana.

Gauean, parranda gaztetxean.

MARTXOAK 4 Asteartea**HERRI INAUTERIAK**

18:30 Jitomoxorroen prestaketak,


gaztetxean.

19:00 Jitomoxorroen kalejira.

21:30 Herri afaria, Aitzkoarren.

PERTSONAIA:

Jitomoxorroak: Buruan lastozko txanoa, aurpegia estalita joaten dira, eta zakua gorputzean. Eskuan zigorra daramate, eta haien aurrean korrika egin behar da zigorra jaso nahi ez bada.



URDIAIN

HERRI IHOTEAK**MARTXOAK 1 Larunbata**

18:00 Ezkil jotzea eta Mantagunain jaitsiera.

20:00 Amaiera etxajua eta Mantagunain argazkia, plazan.

21:30 Afaria, gaztetxean.

00:30-03:00 AM Hours pintxada, gaztetxean.

MARTXOAK 2 Igandea

Arratsaldean, momoxarro txikiak aterako dira.

MARTXOAK 4 Asteartea

18:00 Ezkil jotzea eta momoxarruen jaitsiera.

20:00 Amaiera etxajua eta momoxarruen argazkia, plazan.

PERTSONAIK:

Mantaguna: Arpilerazko mantak edo zakuak darama soinean, aurpegia estalita eta ikusteko bi zulo. Eskuan zigorra dute eta jendea berotzeko prest daude. Zirikatzen *Mantaguna, guna, guna, zakuan kunkuna* kantatu behar zaie.

Momoxarrua: Soinean ardi narruak, ohe estalkiak edo bestelako jantziak daramatza, aurpegia estalita eta farak dituzte, nondik dabilten jakiteko. Jendea zigorrekin berotzen ariko dira, eta Momoxarro xirikitxarro, esportero

molinero, zaia janda punta gero, arre konpañero errepika erabiltzen duten herritarren atzetik ibiliko dira.



ALTSASU

INAUTERI AURREKO ASTEA

OTSAILAK 28 Ostirala

19:00 *Momotxorroak: Kaos baten istorioa* Galdakaoko Andra Mari dantza taldearen film dokumentalaren emanaldia, Iortia kultur gunean.

MARTXOAK 1 Larunbata

18:00 Altsasuko inauterietako errepresentazioa Milakolorerekin, Intxostiapunta gazte gunean.

MARTXOAK 2 Igandea

INAUTERI TXIKIA

11:30 Altsasuko erraldoiekin eta Altsasu eta Etxarri Aranazko gaiteroekin kalejira, Intxostiapuntatik.

18:00-19:30 Txokolate jana eta mozerro dantza Xaiborrekin. Bukaeran, Zezensuzkoa, Foru plazan (eguraldi txarrarekin Iortia zabalgunean).

MARTXOAK 4 Asteartea

HERRI INAUTERIA

11:00 Puska biltza, Zelai Txiki kaletik hasita. Ondoren, auzatea. Poteoa Zangitu Fanfarrearekin, Alde Zaharrean. 14:30 Herri bazkaria, Altsasuko Gazte Asanbladak antolatuta, Burunda frontoian.

Txartelak: 12 euro, Arkangoa, Txalaparta, Lezea eta Gautxori tabernak.

16:30 Matxingaiztoen kalejira, Altsasuko Gazte Asanbladak antolatuta, Burunda frontoitik. Inauteri txikiaren kontzentrazioa eta txokolate jana,

Zumalakarregi plazan.

17:00 Inauteri txikiaren irteera, Eztanda Txaranga eta Altsasuko Gaiteroak lagunduta, Zumalakarregi plazatik.

18:00 Inauteri txikiaren Foru plazara iristea, eta zezensuzkoa.

18:30 Torraden dastaketa eta dantzaldia, Foru plazan. Kalejira, Foru plazatik Zelandira.

18:30 Odolaren errituala eta inauteriaren kontzentrazioa, Zelandin.

Oharra: bakarrik mozerrotutako jendea sartuko da Zelandira.

19:15 Inauteriaren irteera Eztanda eta Txorongo txarangekin, Zangitu fanfarrearekin, Altsasuko gaitero eta txistulariekin eta Zapiu Trikitixa Eskolarekin.

Oharra: lehenengo maskaritak, sorgina eta Akerra eta maskarada aterako da, eta ondoren, hesia berriz ibxi, eta momotxorroak aterako dira.

19:45 Akelarrea Dantzarima dantza taldearekin, Zumalakarregi plazan.

21:00 Inauteriaren etorrera, ezkil errepika, dantza eta mozerroa kentzea, Foru plazan.

PERTSONAIK:

Maskarita: Damasko erako ohazal bat daramatza burutik oinetara, aurpegia estalita, eta behan mahoizko prakak, artilezko galtzerdiak eta zatak.

Momotxorroa: Buruan saski bat adarrekin eta ipuruarekin daramate, sorbaldara jaisten den narruarekin. Gorputzaren aurreko aldean odolez zikindutako maindire bat eta aurpegia estaltzen zaldi ileak. Sorbaldan, gerrian lotuta, joareak daramatzate, eta eskuan sardea. Mahoizko prakak, artilezko galtzerdiak eta zatak daramatzate ere.

Sorginak: Tradizioz beltzez jantzen dira, oihal zatitox betetako gona batekin. Buruan lastoz egindako ile ordain bat daramate, zapi beltz batekin lotuta, eta aurpegia horiz edo arrautzez, begien ingurua eta ahoa beltza daramatzatela. Oinetan artilezko galtzerdiak eta zatak daramatzate, eta eskuan erratza. Akerraren inguruan biltzen dira.

Akerra: Ardi baten azalarekin egindako maskara dauka aurpegian, adar handiekin, gorputza ardi beltzen baten azalarekin inguratuta dauka. Makil bat darama, aker baten buruarekin amaitzen dena. Sorginekin joaten da.

Juantranposo: Lastoz betetako arpilezko jantzia darama soinean,



ARTXIBOA

ALTSASU Inauteriei buruzko ikastetxeen eta Maite Martinezen argazkien erakusketa, Altsasuko Herri Inauterietako batzordeak antolatuta. *Otsailaren 26tik martxoaren 7ra. Iortia kultur guneko erakusketa aretoan.*

gizena da, aurpegia estalita eta buruan txapela daramatza. Txerri baten buztana dauka.

Golda: Golde bati tiraka egiten dion idi momotxorro parean.

OLATZAGUTIA

OTSAILAK 28 Ostirala

19:30 Mari Arroka, San Migel plazan.

MARTXOAK 1 Larunbata

IHOTEAK

13:00 Sakanako trikitixek alaitutako bermuta.

14:30 Herri bazkaria: babarrunak sakramentuekin, frontoian. Torrada lehiaketa: izena ematea ohiko

tabernetan; gutxienez hamabost torrada aurkeztu behar dira, eta egunean bertan eraman behar dira bazkaria aurretik (13:00etan).

18:30 Irteera, Neska eskulturatik. Ibilbidean zehar gazta, ardoa eta salda.

20:30 Kintoek zortzikoa dantzatuko dute, Lasko txarangearekin, San Migel plazan.

Oharrak: Ihotea Elkarreak balkoiak apaintzeko deia egin du, eta txarangari lurra ez botatzea eskatu du.

PERTSONAIK:

Mari Arroka: Jainkosa bat da. Suzko igitai bat dauka, eta inauteriei ongi etorria ematen die.

Neska: Ohegaineko bat eramaten dute, tolestuta, kapa sortuz. Buruan saski bat daramate, koloretako zintekin aurpegia estaltzen zaiela.

Zamar handia: Buruan ipurukoa, bi narru eta beheko aldean gona bat daramate. Gurdi bat eramaten dute eta bertan lurra eta hautsa eramaten dituzte eta jendeari botatzen diote.


Zamar txikia: Narru bakarra daramaten sorbaldan, eta behean mahoizko prakak; aurpegia beltza eta estalita eramaten dute eta jendea zikintzen saiatzen dira.

Alkatea, apaiza, medikua, almiltea eta basozaina: Garai batean jantzen ziren bezala jantzen dira.

MARTXOAK 4 Asteartea

HAUR IHOTEAK

17:00-18:30 Merendola eta diskofesta, Akelarre ludotekan. Sarrera librea.



ALTSASUKO
IHOTEAK
ZUZENEAN

MARTXOAREN
4AN
20:55EAN
ASTEARTEA
WWW.GUAIXE.EUS-EN

FESTAROPREN ESKUTIK



EMAKUME PREFERENTEA

18. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasuk atseden jardunaldia zuen

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTEA . 1. FASEA

1	Altsasu	41
2	Gazte Berriak	39

HURRENGOA

MARTXOAK 1, LARUNBATA

12:00 Gares - Altsasu (Osanbela)

Altsasuk atzeratutako partida jokoan

Asteburuan ez dago ligarik, baina Altsasuk atzeratutako partida jokatu du Garesen.

GIZON ERREGIONALA

21. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lagun Artea - Altsasu	1-3
Rotxapea B - Etxarri Aranatz	4-0

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1	Altsasu	61
3	Etxarri Aranatz	48
7	Lagun Artea	32

HURRENGO JARDUNALDIA

MARTXOAK 1, LARUNBATA

15:30 Universidad - Lagun A. (OPUS)

16:00 Altsasu - Beti Onak B (Dantzaleku)
Etxarri A. - Amaya (atzeratuta)

Lagun Artea vs Altsasu, partida

lehiatua Zelai Berrin

Lagun Arteak Altsasu liderra hartu zuen Lakuntzan, eta bi taldeek sekulako partida eskaini zuten. Gorka Egurzak Lagun aurreratu zuen, baina Altsasuk penaltiz berdindu zuen (Guisado) eta, azkenean, 1-3 irabazi zuen (Lopez de Goikoetxea, Vera) lakuntzarrek protestatutako jokaldia tarteko. Altsasuk Beti Onak-ekin bide onean jarraitu nahi du, eta Lagun Arteak 3 puntuak ekarri nahi ditu Universidad de Navarratik.

Etxarri Aranatz, porrota ahaztera

Etxarrik sentsazio onak berreskuratu nahi ditu; kopako finalerdia du jokoan bihar, eta horregatik ligako partida atzeratu du.

ARETO FUTBOLA Aralar Mendiren itzulera ligara

Kopa ahaztuta, Aralar Mendi hirugarren mailako ligan murgilduko da. Burlata hartuko du larunbatean, 12:00etan. Lehen autonomikoan Arbizuk lider segitzen du (Canterari 9-1 irabazi) eta Altsasu bigarren da (atseden jardunaldia). Asteburuan ez dago jardunaldirik. Martxoaren 6an Altsasuk Tafa hartuko du, 20:30ean, Zelandin. Emakumeen lehen seniorreko bigarren fasean Xotak Azkoien du aurkari larunbatean, 10:00etan, Atakondoa.



Albisu, Peña II.ak, Ezkurdiak eta Rezustak asteazkenean aukeratu zuten materiala. Ez zuten arazorik izan. UTZITAKOIA

Joseba Ezkurdia da gure itxaropen bakarra

PILOTA Aspaldiko partez, Joseba Ezkurdia izango da Binakako finalerdietarako ligaxkara sailkatzen den sakandar bakarra. Finalerdietako ligaxkako lehen partidari Ezkurdia-Rezustak Peña II.a- Albisu dituzte aurkari, "bigarren itzuliko bikote onena"

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Binakako Pilota Txapelketa finalerdietan dago eta zerotik hasiko dira sailkatu diren lau bikoteak: Ezkurdia-Rezusta, Laso-Iztueta, Artola-Mariezkurrena eta Peña II.a-Albisu. Baiko enpresak hiru bikote sartu ditu finalerdietan, eta bakarra Aspek, Ezkurdia-Rezusta, beteranoenak. 2016tik ez zen halakorik gertatzen, azken urteetan Asperen nagusitasuna erabatekoa izan baita.

Zabaleta eta Martija gabe

Joseba Ezkurdia da sakandarron itxaropen bakarra, Zabaleta eta Martija bidean geratu baitira, eta modu nahiko tristean, gainera. Martijak eta Etxeberriak

ez zuten espero zen maila eman, eta ligaxkako azkenak izan ziren. Zabaleta eta Elordi, 2023ko txapelkunak, inork nahi ez duen moduan geratu dira kanpoan: play-offetako lehen kanporaketa galdu eta bertan lesionatuta. Ordura arte ligaxkako partida guztiak jokatu zituzten, baina Artolaren eta Mariezkurrenaren kontrako partidari euren eskuin eskuak txikituta bukatu zuten. Play-offetako bigarren kanporaketan Zabalak eta Eskuzak oso ongi ordezkatu zituzten, eta ia Peña II.a eta Albisu irabaztear egon ziren, baina ezinezkoa izan zen (22-18 galdu), eta Elordi eta Zabaleta Binakakotik kanpo geratu ziren, modu ezin tristeagoan.

Peña II.a-Albisu, lehen arerioak

Binakako finalerdietako ligaxkako lehen jardunaldian Ezkurdiak eta Rezustak Peña II.a eta Albisu izango dituzte aurkari igandean, Gasteizko Ogetan. Asteazkenean egin zuten material aukeraketa, eta txapelketan barrena horrenbeste polemika piztu duen materialaren inguruan ez zuten inolako kezarik adierazi. Ezkurdia eta Rezusta kontziente dira zerotik hasten direla eta Peña II.a eta Albisu "oso aurkari gogorrak" direla. "Ligaxkako bigarren itzuliko bikote onena dira. Agian honakoa euren kontrajokatzeke unerik okerrrena da" azaldu zuen Aspek bikoak. "Partida oso zaila" espero dute.

Gure Pilotako txapelkunak

PALETA GOMA Nafarroako Kirol

Jolasetako Nafarroako Banakako Paleta Goma Txapelketa azken txanpara iritsi da. Otsailaren 16an finalak jokatu ziren Iruñeko Labrit pilotalekuan, giro onean, eta Etxarri Aranatzko Gure Pilota kluba primerako uztarekin itzuli zen. Arhane Garmendia txapelduna izan zen, eta June Campos eta Nerea Marroyo txapeldunordeak.



©PILOTARIANAU



Jon Erdozia igandean Oñatin. EGUR SPORT

Oiarbide, Erdozia eta Mitxelena, finalean

AIZKORA Aitor Saralegi finalerako sailkatuko da igandean Urrotzen Urrutia mendean hartzen badu

M.B.G SAKANA

Martxoaren 16an Urrezko Aizkolarien Txapelketako final handiak jokatu dira Azpeitian. 23 urtez azpiko Banakako Urrezko Aizkolari Txapelketako finalistak nortzuk diren asteburuan erabaki zen, Oñatin. Jon Erdozia eta Joan Goikoetxea etxarriarrek lehia izan zuten eta Erdozia (4:52) gailendu zitzaion Goikoetxeari (5:21). Kanporaketa guztiak kontuan hartuta, Aritz Oiarbide eta Jon Erdozia lehengusu etxarriarrek eta Jokin Larrietak jokatuko dute finala.

19 urtez azpiko Banakako Urrezko Aizkolari Txapelketan momentuz bi finalista daude: Oier Mitxelena altsasuarra -Oñatin Beñat Senosiain (5:07) baino azkarragoa izan zen: 4:05- eta Kimetz Alzola. Hirugarren hautagaia Aitor Saralegi irurtzundarrak eta Julen Urrutiak elkarren kontra igande eguerdian Urrotzen jokatu duten kanporaketatik aterako da.

Zestau eta Aguas, txukun

Banakako Harri Txikien Harri Jasotze Txapelketan Ane Zestauk 2.060 kilo jaso zituen eta Oskar Aguasek 5.079 kilo. Ez dira finalerako sailkatu, baina Sakanako eskolakoek itxura oso ona ematen zuten.



Nafarroako 16 eta 19 urtez azpiko areto futboleko selekzioak jokalariek elkarrekin, Madrilen. FEDERAZIOA

Nafarroak agur estatu mailako txapelketari

ARETO FUTBOLA Nafarroako 16 eta 19 urtez azpiko selekzioak multzoen fasean erori dira. Xotako Nahia Lamarca, Leire Fernandez, Naia Lizarraga, Nahia Moran, Ekiñe Aguirre eta Eider Goikoa aritu dira selekzioan, Leandro Fernandezek esanetara

Nafarroako txapeldun dela hasi du sasoia Astizek

DUATLOIA Igandean Errioxako IV. Villa de San Vicente duatloi gogorrean hirugarrena izan zen Mikel Astiz ihabardarra, lehen nafarra, eta Nafarroako Distantzia Erdiko Txapelketa irabazi zuen. Sergio Garcia de Eulate hamargarren izan zen Valtieran

M.B.G. SAKANA

Otsailaren 23an IV. Villa de San Vicente Duatloia jokatu zen Errioxan (9 km-51 km-10,5 km), distantzia erdian. Errioxako proba, aldi berean, Errioxako eta Nafarroako Distantzia Erdiko Txapelketa izan zen.

Proba gogorrean, txapelduna Mikel Mugica (2:36:59) izan zen, Pello Osororen (2:43:09) eta Hiru Herriko Mikel Astizen (2:43:53) aurretik. Emakumezkoetan Irune Lopez gailendu zen (3:10:11).

Ihabarko Mikel Astiz lehen nafarra izan zenez, Nafarroako Distantzia Erdiko Duatloi txapelduna dugu, Imanol Etxarriren eta Iosu Cariñanosen aurretik.



Mikel Astiz, Nafarroako txapelduna, Imanol Etxarriren eta Iosu Cariñanosen artean. FEDERAZIOA

M.B.G. SAKANA

Otsailaren 19tik 23ra Espainiako Emakumezkoen Aretu Futboleko 16 urtez azpiko eta 19 urtez azpiko Txapelketetako multzoen fasea jokatu zen Madrilen. Nafarroako selekzioek parte hartu zuten, Xotako jokalaririk ohi Leandro Fernandezek gidatuta. Tartean, Irurtzango Xotako jokalariek zeuden: 16 urtez azpikoan Nahia Lamarca eta Leire Fernandez, eta 19 urtez azpikoan Naia Lizarraga, Nahia Moran, Ekiñe Aguirre eta Eider Goikoa. Sakandarrek lan ona egin zuten.

16 urtez azpiko mailan Nafarroa ongi aritu zen Kantabriaren kontra, 0-2 irabazita, baina Madrilen eta Aragoiren kontra galdu eta gero, A multzoko hirugarren sailkatu zen Nafarroa. Multzoko onenak, Madrilek, egin du aurrera. 19 urtez azpikoan Nafarroa laugarren sailkatu zen, Kantabria, Madril eta Aragoiren kontra galdu eta gero. Madrilek egin du aurrera. Lehiatzeaz gain, RFEF-ko Futbolaren Hiria bisitatu zuten Nafarroako selekzioak kideek, esperientzia zirrarragarria. Rafa del Amo izan zuten gidari.

Valtierra eta Viana

Egun berean Valtierako Duatloia jokatu zen (5 km-24 km-2,5 km). Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate hamargarren sailkatu zen (1:02:01), Mikel Faber txapeldunetik 2 minutura (59:23). Juan Carlos Gomez 44. iritsi zen (1:07:27). Otsailaren 16an jokatu-tako Vianako Duatloian ere fin ibili zen Garcia de Eulate, hamahirugarren izan baitzen.

Arbizuko Duatloia, ate joka

Iazko etenaldiraren ondoren -Nafarroako egutegian datarik gabe geratu zen-, bueltan da Arbizuko Udalak antolatutako Arbizuko Duatloia. Martxoaren 29an jokatu da, eta Nafarroako Triatloi Federazioak berehala zabalduko du izena ematea. Beraz, adi egotea eskatu dute. Nafarroako proba beteranoena da Arbizukoa, lasterketa gogorra, egutegian garrantzitsua.

Altsasuko Duatloia, bertan behera

Tamalez, aurten ez da Sakana Triatloi Taldeak antolatzen zuen Altsasuko Duatloia jokatu. Lan handia du atzetik, eta aurten ezinezkoa izan da.


LABURREAN

Etxarrik Kopako finalerdia du jokoan



Erregionaleko liga ahaztu eta Nafarroako Kopan zentratuko da Etxarri Aranatz, larunbatean hitzordu oso garrantzitsua duela: Nafarroako Kopako finalerdia, Ziraukiren kontra. Partida Ziraukin jokatu da, bihar, 17:00etan. Lehia estua espero da, saria handia baita: kopako finaleko txartela. Etxarrik zaleei babesa eskatzen die, eta asko hurbilduko dira.

Narora Razkin, Urrezko Fasean



Asteburuan emakumezkoen Espainiako Futbol Txapelketako Urrezko Fasea jokatu da Zaragozan. 14 urtez azpiko Nafarroako selekzioa B multzoan lehiatuko da, Madril, Valentzia eta Euskadikoekin. Raquel Castillo hautatzaileak Narora Razkin Larraza etxarriarra deitu du (Kirol Sport). Entrenamenduetan Gorette Artolak parte hartu zuen.

Zubiria eta Goñi, amateur selekzioan



Nafarroako gizonezko afizionatuen selekzioa martxan dago, eta bi urtetik behin jokatzeko UEFA-ko Eskualdeen Kopa presztatzen hasi da. Jaime Sanchez hautatzaileak deitutako 25 jokalariren artean bi sakandar daude, hirugarren mailako pitxitxia, Unai Zubiria Gartzandia lakuntzarra (Bidezarra), eta Xabier Goñi Gastesi irintarra (San Juan).



Ander Corchero, suspentsiozko oztopoetako bat gainditzen. UTZITAKOIA

"Oztopo guztiak gaindituta, sentsazioa ikaragarria da"

ANDER CORCHERO FORTUNA OZTOPO LASTERKETAK
Medieval Xtrem Race-en hirugarren izan zen altsasuarra

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Ander Corchero Fortuna altsasuarrak Medieval Xtrem Race Polop oztopo proban parte hartu zuen otsailaren 16an, eta 25-29 adin tartean hirugarren sailkatu zen.

Noiz hasi zinen oztopo probetan?

2018an, Mikel nire anaiarengatik. Esan zidan Madrileraja joan behar zela kuadrillako batekin Spartan Race proban parte hartzera. Oztopo lasterketa bat zela esan zidan. Interneten begiratu, eta erakarri ninduen; korrika egin behar zen, eta bidean zenbait oztopo gainditu, tartean eskaladako elementuak. Garai hartan eskaladan eta futbolean nenbilen. 2018an Iruñean Farinato Race egin zen, kuadrillako batzuekin probatu nuen, eta horrela hasi nintzen.

Nola prestatzen zara?

Korrika egitera nire kabuz ateratzen naiz, Altsasuko Rokodromoan eskaladan aritzen naiz eta Aizkorrin pixka bat entrenatzen dut, sasoia mantentzeko.

Nolakoa da oztopo lasterketa bat?

Lasterketak 10-12 km-ko ibilbidea izaten du normalean, eta ibilbide horretan hainbat oztopo dau-

de, denetarik: orekakoak; trebeziako probak; pisutsuak, hau da, zakuak, kateak edo pisuzko elementuak mugitzea; suspentsio edo indarrezkoak, hau da, pulstuan edo airean zaudela besoe-kin indar guztia eginez gainditu beharreko ariketak... Beraz, indarra eta erresistentzia handia behar duzu.

Indarra da garrantzitsuena?

Teknika eta indarra, biak. Indarra behar da, baina batez ere teknika, gehiena.

Zergatik ugaritu dira horrenbeste proba hauek? Ohiko kirolez asper-tu al gara?

Alde batetik, baietz esango nuke. Betikoak kirol tipikoak dira, eta hauek berriak dira, eta ezberdinak. Geroz eta indar gehiago hartzen ari dira azken urte hauetan, hasi nintzenetik asko nabaritzen dut.

Sakanako oztopo kirolari gehiago ibiltzen dira edo bakarra al zara?

Nik dakidanez, lehiaketa mailan aritzen naizen bakarra naiz, baina proba herrikoietan, agian sakandar gehiago egongo dira. Artaxoako proba herrikoira Aizkorritik jendea joan zen.

Zein txapelketetan lehiatzen zara?

Futbolaren antzera, maila ezberdinak daude. Estatu mailako oztopoen liga nazionala dago, gero OCR Series (Obstacle Course Race), futboleko Champions League antzekoa litzatekeena, hau da, estatuko lasterketa zailenak eta gogorrenak, eta, azkenik, kopa edo Espainiako Txapelketa liratekeena. Ni normalean ligan ez naiz aritzen, 25 lasterketa inguru direlako, proba asko, diru asko... bideraezina da. Nahiago dut OCR Serietako zenbait probatan parte hartu, lasterketa gogorrenak, zailenak eta politenak direlako, eta Espainiako Txapelketan aritzea.

Otsailaren 16an Polopen (Alacant) parte hartu zenuen Medieval Xtrem Race, OCR Series-ekoa da?

Bai, hori izan zen lehena. Seitik gora dira, eta tartean daude Unbroken Torrevieja (martxoak 1), Gladiators Day Artajona (apirilak 12), Denontzat Race Irun (maiatzak 3), Oztopo Barik Bilbao (maiatzak 16), Olympus Race Andorra (uztailak 12) eta Spartan Tenerife Trifecta Weekend (azaroak 22-23). Ahal dudanean parte hartuko dut. Nahiz eta guztiak egin, zure bost lasterketa hobere- nek puntuatzen dute.

Ongi hasi zara, Medieval Xtrem Race-en hirugarren izan baitzinen.

Ni 25-29 urte tarteko kategorian lehiatzen naiz, eta maila horretan hirugarrena izan nintzen. Orain kontentua nago, baina momentuan ez, azken kanpa edo konbora lehen postuan iritsi nintzelako, baina orduan bi bikiak igo zitzaizkidan. Biak. Putada bat izan zen, justu azken lana zelako eta oztopo zailenak bertan izaten direlako. Sei-hamar oztopo zailen konboa izaten da.

Probak horren gogorrak al dira?

Bai. Medieval Xtrem Race 10 km korrika ziren, eta tartean 51 oztopo zeuden: orekakoak, hormak igo, kargak eta pisuak eraman, suspentsiozkoak... Esaterako, goian zuloz betetako trabesa bat genuen eta guk, esku bakoitzean makil bana genuela, makilak goiko trabesa horietako zuloetan sartuz zeharkatu behar genuen tarte hori, airean geundela, pul-

"KORRIKAKO EREMUKO OZTOPOAK ANITZAK DIRA: OREKA, PISUA, HORMAK SUSPENTSIOZKOAK..."

Oztopoak, hyrox-a ongi etorri kirolari

Sakanako gimnasio, kiroldegi eta kirol klubak leporaino beteta daude altxatzeak eta gimnasioetan lantzen diren ariketak eta bestelakoak dira, eta tartean oztopoen lasterketak eta hyrox-a daude. Sakand-

tsoz. Handik jaitsi eta segituan bi zirkulu hartu genituen, erdian borobil bat zutela, eta goian zintzilikatuta zeuden makiletan sartu behar genituen, eremua gurutzatzeko. Gero pulstuan gaitu beharreko helduleku batzuen konboa, eta bukaerako konboan 10 metroko eremua gaitu behar zen, denetariko traba eta oztopoekin.

Kirol guztiak dute berea, baina honek sufrikario latza dirudi.

(Kar-kar) Nik beti diot pista amerikar bat bezalakoa dela; probek atentzia ematen dute. Eta sufritzen da, bai. Proba berezia da, speakerrak giroa animatzen du, eta azken konboan egoten da jende gehiena, kirolariak animatzen. Ikuskizuna da, show-a. **Bikien arazoa gertatu ez balitz, txapelduna zinateke...**

Unean pena hori nuen; haserre handia hartu nuen, baina ezin da ezer egin. Iaz, Espainiako Txapelketan antzekoa gertatu zitzaidan. Azkeneko heldulekura lehenena iritsi nintzen, eta proba bukatzeko ezinegonarekin irrist egin nuen. Penalizazioan 400 metroko pistari buelta bat

eman behar izan nion 25 kiloko bidoia eta 25 kiloko sokarekin. Bosgarren bukatu nuen.

Zein izan da zure lorpenik onena?

Lasterketa dezente irabazi ditut. Esaterako, bi Medieval Xtrem Race irabazi ditut, eta aurten hirugarren izan naiz. Espainiako Txapelketari dagokionez, 2022an laugarren izan nintzen, 2023an Zuastin jokatuakoa hirugarren, eta iaz bosgarren. Aurtengo helburu nagusiak dira maiatzaren 22an Beguesen (Katalunia) jokatu den Espainiako Oztopo Txapelketan aurrean egotea, eta ekainaren bukaeran Lisboan jokatu diren Europako Txapelketak. Lisboan lasterketa ona egitea da asmoa, bertan irabaztea oso zaila delako. Maila handia dago.

Jendea animatuko zenuke?

Jakina! Kirol gogorra da, sufritzen da, baina oztopo guztiak gainditzen dituzunean sentsazioa ikaragarria da. Merezi du. Zure burua etengabe gainditzeko erronka da, pixka bat adiktibo, egia esan. Korrikaren eta eskaladaren sinbiosia da, oso gustuko dudana. Proba ezazue!



Ander Corchero, kate pisutsuak soinean, korrika. UTZITAKOIA

Hyrox-a... kirol berriak!

ude. Kirolaren gorazarre honetan, crossfit-a, fitness-a, pisu
k oinarri hartuta, hainbat kirol modalitate berri sortu dira. Askok
arrak ere molde berrietara batu dira



Nekane Villarroel eta Ainhoa Baz, otsailaren 16an Hyrox Bilbaon. UTZITAKOIA

**"Hyrox-a oso dibertigarria da;
bukaturata, satisfazioa handia da"**

NEKANE VILLARROEL KARASATORRE HYROX
Etxarriarra Hyrox Bilbaon aritu zen Ainhoa Bazekin

M.B.G. ETXARRI ARANATZ

Nekane Villarroel etxarriarra
iaz aritu zen lehenengoz hyrox
proba batean. Aurten errepikatu
du, Ainhoa Baz aldamenarekin
bikotea osatuta.

Nola sartu zinen hyrox-aren munduan?

Nik ez nuen ezagutu ere egiten.
Nik korrika egiten nuen, baina
zertxobait gehiago behar nuela
konturatzen nintzen, gorputz
guztia lantzeko. Aizkorrin hasi
nintzen eta han hyrox-a ezagutu

nuen. Gustatu zitzaidan, korrika
eta bestelako ariketak kombina-
tzen dituelako. Gaizka monitoreak
iaz Hyrox Bilbao proban parte
hartzera animatu ninduen, eta
bikotea aritu nintzen, bakarrik
ez nintzelako ausartzen. Pila bat
gustatu zitzaidan. Hyrox-a kor-
rika ariketekin konbinatutako
kirola da. Zortzi ariketa edo lan
zona kilometro bateko zortzi
korrikaldiekin konbinatzen dira.
Beraz, guztira 8 km korrika egi-
ten dira, eta zortzi ariketa.

Ariketa horiek nolakoak dira?

Otsailaren 16an Hyrox Bilbao
2025ean egin genuena kontatuko
dut. Lehenik eta behin BEC pa-
bilioiari bi buelta eman genizkion,
eta kilometro bat osatu. Lehen
lan eremuan sartu ginen segidan,
ski erg makinan. Makinarekin
kilometro bat egin genuen, bi-
naka geundenez, txandaka. On-
doren, korrika, beste kilometro
bat egin genuen. Hurrengo gunea
lera edo trineoarena zen. Lerak
102 kiloko karga zuen, eta 12,5
metroko distantzia edo plaza lau
aldiz egin behar izan genuen,
lera bultzatuz. Hura bukatuta,
berrito kilometro bateko korri-
kaldia egin genuen, eta lerara
buelatu ginen, baina kasu ho-
netan 58 kilo gainean zituen le-
ratik tira egin behar genuen, eta
beste lau plaza osatu. Atzera ere
kilometro bat egin genuen kor-
rika, eta hurrengo gunera iritsi
ginen: *burpee* saltoak.

Nolako saltoak dira?

Salto bat gora egin, eta lurrera
bota. Horrela, 80 m osatu behar
dira, baina ezin dituzu besoak
gaizki jarri. Ondoa pertsona
bat dago ariketa ongi egiten du-
zula ziurtatzeko. Hura bukatuta,
berrito kilometro bateko korri-
kaldia egin, eta segidan arraun
makinara joan ginen, kilometro
bat egitera. Segidan, kilometro
bateko korrikaldia egin, eta hu-
rrerako eremura sartu ginen:
txingak. 16 kiloko txingekin 200
metro egin genituen. Beste kilo-
metro bateko korrikaldiaren
ondotik, hurrengo ariketa *lunges*
delakoa izan zen, oinkadak. Hau
da, 10 kiloko zakuarekin oinka-
dak egin, guztira 50 metro. Be-
rrito kilometro bateko korrikal-
dia egin genuen, eta azken pro-
bari ekin genion: *wall balls* edo
baloia handiak. 4 kilo pisatzen
dituzten baloiak dira, eta distan-
tzia batera jarrita dagoen diana-
ri 100 aldiz jo behar zaio. Listo.

Prestakuntza handia eskatuko du.

Proba jokatu aurretik ariketa

hauek egiten gehiago zentratzen
gara, baina asteroko klasetan
egiten ditugun ariketak dira.
Jakina, korrikako atala norberak
bere kabuz landu behar du. Ohi-
tura hori ere izan behar du.

Hyrox Bilbao bezalako proba batean

aritzea saltoa izango da, ez?

Bai. Iaz lehenengo aldiz aritu
nintzen, Binakako txapelketan
emakumeen 40-49 adin tarteko
kategorian. Kategoria bakoitzaren
arabera, pisuak aldatzen
dira. Pro mailakoek, lehiaketa



Nekane Villarroel Hyrox Bilbaoko lunges proban, atzetik Ainhoa Baz duela. UTZITAKOIA

maila gorenekoek, pisu gehiago
izaten dute, esaterako, baina kor-
rikako eremua denondako ber-
dina da, 8 km guztira. Milaka
pertsonak parte hartzen dute,
pasada bat da. Aurten otsailaren
15ean jokatu behar zen, baina
zegoen eskaria ikusita otsailaren
16raino luzatu zuten, bi egunetan,
eta jendea kanpoan geratu zen.
Guztira 8.000 inguru aritu omen
ginen. Aizkorritik larunbatean
hiru talde erraz joango ziren, eta
igandean hiruzpalau talde eta bi
neska, bakarka.

Norekin osatu zenuen bikotea?

Ainhoa Baz nire aldamenarekin,
osogustura. Berak ez zuen hyrox-a
egiten, baina nire aurreko urte-
ko bikoteak aurten ez zuen aritu
nahi, Ainhoari aipatu nion, kor-
rika egitera berarekin joaten
naizelako, eta animatu zen. Bere
kabuz hasi zen entrenatzen, bai-
na azken hilabeteetan Aizkorri-
ra etorri zen. Gustura aritu ginen
Bilbon. Ainhoa, zer esanik ez.
Dagoeneko esan dit datorren
urtean berrito Bilbora bagoaze-
la, eta, agian, aurten beste pro-
baren bat ateratzen bada, hara
goazela (kar-kar). Gustatuko li-
tzaiguke, gogotsu gaude.

Zer espero zenuen?

Azken unera arte lesionatuta
ibili ginen biak, eta ezin izan
genuen behar bezala entrenatu,
nik bizkarra gaizki nuelako eta
berak belaunean arazoak zitue-
lako. Beraz, proba minik gabe
bukatzeari, hori zen gure helburua,
eta disfrutatzea. Nahiz eta tar-
teka nekatuta aritu, ahal genuela
ikusten genuenean, goraka
egiten genuen. 1:18:58, hori izan
zen gure denbora. Ahal genuen
guztia eman genuen, eta eginda-
koarekin oso pozik gaude. Ema-
kumezkoen binakako 40-49 urte
arteko gure mailan igandean

tarte horretan aritu ginen 30
bikoteetatik hamahirugarrenak
izan ginen, guretako super ongi.
Ezin dugu gehiago eskatu. Txa-
pelketan arnasestuka zoaz, eta
pentsatzen duzu: "nork aginduko
zidan niri honutza etortzea!"
Baina bukatzen duzunean sent-
sazioa sekulakoa da: "lortu dut"...
satisfazioa handia da.

Hyrox-a crossfit-etik dator. Zergatik

uste duzu halako arrakasta duela?
Niri korrika egitea bakarrik
aspergarri egiten zitzaidan, eta
konbinazioa primerakoa iruditzen
zait. Ainhoak ere hori bera esan
zidan. Aparte, ez da crossfit-a
bezalako kirol teknikoa. Nik uste
dut edonork egin ditzakeela hy-
rox-eko ariketak, bakoitzak bere
neurrian, jakina. Adin guztietako
jendea zegoen Bilbon: gazteak,
helduak, beteranoak.. Guztiek
egin dezakete kirol hau.

Behin hasita, zure buruari gehiago

eskatuko diozu.
Kirol guztietan bezala. Azkenean,
denok pikatzen gara pixka bat
eta hobetu nahi dugu. Gero, de-
netatik dago: helburu eta denbo-
ra batzuk finkatzen dituztenak,
proba bukatzera doazenak...

Zergatik animatuko zenuke jendea?

Gorputz guztia lantzen duzu,
adin guztietako jendeak egin
dezake, ariketa errazak dira,
edozeinek egin ahal dituenak,
oso dibertigarria da, eta proba
gaintzen duzunean duzun sent-
sazio hori... guztiz asetzen nau.
Adin guztietako jendea anima-
tzen dut!

**"EDONORK EGIN
DITZAKE HYROX-EKO
ARIKETAK; ADIN
GUZTIETAKO JENDEA
ARITZEN DA"**

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56

OSTIRALA 28

ALTSASU Hitzaldia.

M8 *Matxismoari eta joera erreazionarioei aurre egiteko beharraz* Itaiaren hitzaldia, Martxoaren 8aren harira. **17:30ean, Gure Etxean.**

eta 1492 zikloaren arteko lotura aztertzen du; zanbar izaera nola eraikitzen den umorez gogoeta egiteko. Inperialismoari, maskulinitateari eta historia eraikitze erabiltzen den ezjakintasunari buruzko satira bat. Sarrerak: 12 euro (azkenak). **19:30ean, Iortia kultur gunean.**

LARUNBATA 1

ALTSASU Antzerkia.

Macho grita Alberto San Juan antzezleak idatzitako eta zuzendutako komedia musikalaren emanaldia: Don Juanen mitotik abiatzen da, oraina

ASTELEHENA 3

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. **12:00etan, Foru plazan.**

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Bridget Jones: Loca por él

Igandea 2 19:30
Astelehena 3 19:00

El secreto del orfebre

Osteguna 6 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

The brutalist

Igandea 2 18:00

La sustancia

Osteguna 6 19:00



UTZITAKOIA

IRURTZUN Begoña Rastrillaren margolanen erakusketa. Gaur azken eguna. *Pikuxar tabernan.*



UTZITAKOIA

OLATZAGUTIA Bubisher proiektuaren hamabosgarren urteurrenaren 'Hegoak Hegan' erakusketa. Martxoaren 3tik 21era. *Liburutegian.*

OSTEGUNA 6

EUSKARAZ

OLATZAGUTIA Tailerra.

Sahararen aldeko *kamishibai* edo ipuin kontalaria eta Saharako kulturari buruzko tailerra. 5 eta 8 urte bitarteko haurrei bideratuta. Bubisher Saharako kabiak elkartearen eskutik. **17:00etan, liburutegian.**

OSTIRALA 7

ALTSASU Manifestazioa


M8 *Faxismoaren kontra, ausardia eta aliantza feministak* lelopean martxoaren 8ko Emakumearen nazioarteko eguneko Sakana mailako manifestazioa. **19:00etan, Foru plazatik Iortia zabalgunera.**

ALTSASU Pilota.


Ados Pilotaren Binakako Txapelketa: Aranburu – R. L. Mujika / Arrieta – Galeano; R. Infante – Orbegozo / Iturriaga – Mendiburu. Sarrerak: 5 euro. **17:30ean, Burunda frontoian.**

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 28




Larunbata, 1



Igandea, 2



Astelehena, 3



BAZKIDE ZOZKETA
Otsaileko saridunak

Joana Ijurko Risco
(Uharte Arakil)

Eneko Larrañaga Flores
(Bakaiku)

Kixkur ileapaindegia
(Ziordia)

Inaxio Beltza Igoa
(Etxarri Aranatz)

Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioseviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

ESKELA



Antonio Alonso Gonzalez

—Goian bego—

Ezer ez da betiko, betirako markatu gintuzten oroitzenak izan ezik

Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak bihotzez eskertu nahi dizkizue

Etxekoak



OROIGARRIA



Gorka Larrea Ondarra

XIII. urteurrena
(Bakaikun, martxoaren 3an)

"Gure bihotzetan betiko, Gorka.
Faltan botatzen zaitugu"

Arbizu eta Bakaikuko familia, maitasunez

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALGAI

Olaztin etxe adosatua salgai: 70m², sukaldea, komuna, egongela eta hiru logela ditu. Informazio gehiago nahi baduzu, deitu 683 346 308 telefonora.

LEHIAKETA

Olaztin IX. Mozorro lehiaketa: Martxoaren 8an, hiri ihotean ospatuko den mozorro lehiaketan parte hartzeko izena eman behar da martxoaren 5a baino lehen. Informazio gehiago udalerean.

Inauterietako I. Ogi torrada lehiaketa Olaztin: Lehiaketan parte hartzeko ohiko tabernetan izena eman behar da eta ogi torradak martxoaren 1ean frontoian aurkeztu behar dira. Informazio gehiago Olaztiko ihote batzordean.

IKASTAROA

60 urtetik gorako altsasuarrendako tailerrak: Baikortasunez bizi, idazketa sortzailea, zure ongizatea elikatu, sasoko egoteko bi tailer. Ikastaroa doakoak dira baina izena eman behar da, informazioa eta izen emateak Altsasuko udalerean.

Gaitasun digital ikastaroak Olaztin: Oinarriko gaitasun digital pertsonalak martxoaren 10etik 21era, administrazio elektronikoa buruzko ikastaroa martxoaren 17tik 21era eta Android telefono mugikorra era-

biltzen ikasteko ikastaroa martxoaren 10etik 14ra. Informazio gehiago 948 012 012 telefonora deituz edota SNEcompetenciasdigitales@nasertic.es edo aventuradigital@navarra.es posta elektronikotara idatziz.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Mank-en lan egiteko aisialdiko begirale eta kirol monitore lan poltsak osatu nahi dira: Bi deialditan parte hartzeko C1 euskara maila beharrezkoa izango da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

OHARRAK

Sakana Harrera Haranak apirilaren 6rako elkartzan azokarako bilketa: Martxoaren 28ra arte etxean dituzun eta egoera onean dauden arropak, jostailuak, ontziak etab ostiraletan, goizeko 11:00etatik 13:00etara Altsasuko garai bateko Sociedad Deportiva tabernara eraman ditzakezu.

Iturmendin mintzakide taldea sortu dute: Ostegun arratsaldetan, kafetegian bildu eta euskaraz hitz egiteko.

Su hartu zuen Arberoa ikastola laguntzeko kanpaina: Kalite material izugarriak izan zituzten sutearen ondorioz eta bertako familiek sostengu kanpaina martxan jarri dute, online denda honetan: [\[te.com/ikastola\]\(http://te.com/ikastola\), diru ekarpenak egiteko kontu zenbaki honetan: FR76 1005 7195 2500 0202 0160 520 edota materiala eman nahi duenak haiekin harremanetan jarri daiteke \[arberoakoi-kastola@gmail.com\]\(mailto:arberoakoi-kastola@gmail.com\).](http://arberoadenda.wixsi-</p>
</div>
<div data-bbox=)

Iturmendiko osasun etxeak telefono zenbaki berria du: Bakaikuko, Iturmendiko eta Urdiaingo udalek jakitera eman dutenez. Osasun arreta eskatzeko 948 633 038 zenbakira deitu behar da hemendik aurrera.

Arbizuko Utzubar Ekogunean konposta eskuragarri: Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak gogorarazi du, nahi duen guztiak urte guztian zehar konposta eskuragarri duela bertan. Informazio gehiago nahi duenak info.hondakinak@sakana-mank.eus e-postara idatz dezala edo 900 730 450 telefonora hots egin dezala.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikaziozko zabalpen-zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzuti antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen-zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp-eko mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 32 85 93

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburra.eus

HERIOTZAK

- **Viridiana Gallo Garcia**, otsailaren 21ean Etxarri Aranatzen.
- **Antonio Alonso Gonzalez**, otsailaren 24ean Altsasun.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

JARRI ZURE
IRAGARKI LABURRA!

948 56 42 75
iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak

OROIGARRIA



Maria Zabaleta Telletxea

I. urteurrena

Izar iheskor baten distirarekin pasatu zinen gure bizitzetatik.

Eta horrela gogoratuko zaitugu beti.

Urdiainen, 2025eko otsailaren 26ean

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo.eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZa bame dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📌 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

ECCEKALABRUA

ECC, diru gabe, pikutara joan da. Argialetxe honek, besteen artean, "DC Comics" estatubatuarren inprimatzeko eskubideak zituen. Batman, Wonder Woman, eta hainbat manga argitaratu ditu 2011n agertu zenetik. Gorrotoa irabazteko meritu handiak egin ditu ECCk. Polemika askotan egon dira sartuta azken urteetan.

Adimen artifiziala erabili zuten hainbat itzulpen egiteko. Honek komiki autore asko jarri zituen kontra. Haren lana argialetxetik ateratzeko eskatu zuen Bruno Redondok. Prezioak igo zituzten, kalitateak behera egiten zuten heinean.

Crowdfunding bat antolatu zuten. Jendeari dirulaguntza eskatu zioten, Batman komiki batzuk argitaratzeko. Surrealista. Batman DC-ren heroi famatuena eta komiki gehien saltzen dituena da. "Guk honekin ez dugu dirurik irabaziko" esan zuen argialetxeak. Nork sinesten du hori? Okerrena da crowdfunding hau aterata, argitalpena gaizki egin zutela. Orrialdeak falta ziren, eta berrargitaratu beharrean, orrialdeak irakurleei postaz

bidaliko zizkietela proposatu zuten.

Edizioak uholdeka atera zituzten, eta orain baztertuta geldituko dira, bukatu gabe. ECCk zerbait ona bazuen, manga bilduma apal baina interesgarriak argitaratzera ausartu zela zen. Orain, manga bilduma horiek bukatu gabe gelditu dira, eta jendea haserre dago. Ez baitakite haien bildumak inoiz bukatu ahalko dituzten.

Baina, okerrera, dudarik gabe, dendarienganako izan duten jarrera da. Hainbat komiki ez zizkieten bidaltzen, diru aurrerapenak eskatzen zizkieten komikiak bidaltzeko... Orain, pikutara joan direla, dendei materiala bueltatzeko aukerarik ez diete eman (bueltatutako guztia dendei ordaindu beharko lukeelako EEC-k) eta izugarritzko iruzurra egin diete dendariei. Denda asko orain zorretan geldituko dira, ez baitute inbertitu dutena berriz berreskuratuko. Batzuek itxi egin beharko dute...

Amorrua ematen dit, nik asko maite izan dudalako DC eta gustuko nuelako ECC arratoi koldar iruzurgile bat bihurtu baino lehen.



Helena Taberna zinemagilea eta Isaac Rosa idazlea aurrestreinaldian. @GOLEMPAMPLONA

Helena Tabernaren 'Nosotros', zinemetan

Zinemagile altsasuarraren lan berriak bikotekide baten maitasun harremanaren amaierari buruz hitz egiten du, eta Isaac Rosa idazlearen 'Feliz Final' nobelan oinarrituta dago. Gaur, otsailak 28, mustu dute hainbat zinematari

ALTSASU

Isaac Rosa idazlearen *Feliz Final* nobelan oinarrituta *Nosotros* filma egin du Helena Taberna zinemagile altsasuarrak. Haren ibilbidearen zazpigarren filma da, eta gaur, otsailak 28, ostirala, mustuko dute zinemetan. Filmak maitasun handiko istorio bat berreraikitzen du, bukaeratik hasita. Maria Vazquez eta Pablo Molinero dira antzezleak, Helena Tabernak zuzendu du eta Virginia Yaguerekin batera idatzi du, eta Lamia Producciones, Vertigo Films eta *Nosotros* la película, AIE ekoiztu dute, RTVEren eta EITBren babesarekin eta ICAA eta Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

Filmean Angela eta Antonio bikote dira; maitemindu ziren, ilusioarekin bizi ziren, seme-alabak izan zituzten eta amore ez emateko esfortzua egin zuten. Baina maitasuna amaitzen denean, galderak sortzen dira: Noiz murtu zen dena? Nola iritsi gara

honaino? *Nosotros* filmak bikotekide harreman baten argi eta itzaletatik bidaia proposatzen du, prekaritatearen eta maitasunaren idealizazioaren kontra borrokatzen duten bitartean. Tabernaren hitzetan: "Filmak ez dio poesiari uko egiten, maitasunaren tranzendentziari egia eta errekonozimendua ematea nahi du. Denboranzehar ematen den bidaia emozional bat proposatzen du".

Filma *Feliz Final* Isaac Rosaren nobelan oinarrituta dago eta aurrestreinaldian. Idazlearen liburuetan oinarritutako laugarren filma dela esan zuen Rosak aurrestreinaldian, "eta hori nik ez dudala literatura zinematografikoa egiten". Gaineratu zuenez, *Feliz Final*-en kasuan, denbora

GAUR MUSTUKO DUTE ZINEMAGILE ALTSASUARRAREN LAN BERRIA ZINEMETAN

atzetik aurrera mugitzen da, eta dena hitzak dira. "Ez du tramarik, besterik gabe banandu diren gizon eta emakume batek bizitutakoa kontatzen du". Horregatik harritu zen Taberna istorioan pelikula bat ikusi zuenean. Gidoian parte hartu ez duen arren, prozesuan parte hartu du idazleak. Adaptazioa baino, nobelan "inspiratzen" dela esan zuen.

Taberna

Helena Tabernaren pelikuletan gizarte eta interes orokorreko gaiak lantzen dira: terrorismoa, emigrazioa, memoria historikoa, genero indarkeria, sektak edo errefuxiatuak. Duela 25 urte mustu zuen bere lehenengo film luzea: *Yoyes*. Ondoren etorri ziren *Extranjeras* dokumentala (2003), *La buena nueva* Marino Ayerra Altsasuko apaiza izandakoaren bizitzan oinarrituta (2008), *Nagore* Nagore Laffageren hilketa-aren inguruko film dokumentala (2010), *Acantilado* filma (2016) eta *Varados* dokumentala (2019).

h&p

Hitz eta putz

Sail berria webgunean

DAGOENKO ONLINE

guaixe



Xalba Ramirez eta Eider Beobide Iruñeko Laban egindako errezitalean. KARRIKIRI.EUS

"Poemetako asko ahoz gora esateko eginda daude"

EIDER BEOBIDE ITZULTZAILEA

'Rifqa' Mohamed El-Kurd idazlearen poesia liburua oinarri hartuta errezitaldi musikatu eginen dute martxoaren 7an, Lakuntzako liburutegian

Eneida C. M. eta Erkuden R. B. LAKUNTZA *Rifqa*: Honengatik egiten dugu dantza poesia errezitaldi musikatu izanen da martxoaren 7an, ostirala, 18:30ean, Lakuntzako liburutegian, Sakanako Mankomunitateak Baztango Udalarekin, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearekin eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearekin batera antolatzen duen 2025eko Literatura Geraldia egitasmoaren barruan. Eider Beobidek, Peru Galbetek eta Xalba Ramirezek emanen

dute Mohammed el-Kurd idazle eta kazetari palestinarren *Rifqa* liburuan oinarritutako errezitala. Beobidek itzuli duen lehenengo liburua da, eta Katakrakek argitaratu du.

Nor da Mohammed el Kurd?

"POEMAK LURREAN JARRI ZITUEN ETA KONTURATU ZEN GAI KOMUNA AMONA ZELA"

Itzultzaile bezala oso garrantzitsua da idazlea ezagutzea. Mohammed el-Kurd palestinar gazte bat da, 1998an jaio zen, justu Nakba egunean. Gaiarentzat eta kontatzen duen guztiarentzat datu garrantzitsua da; palestinarrendako oso egun garrantzitsua da. 11 urte zituelarik israeldar kolonoak haren familiaren etxean sartu ziren eta etxearen erdiarekin gelditu ziren. Horrek eragin handia izan zuen haren familiarengan eta izateko eran. Gero Amerikako Estatu Batue-

tara joan zen ikastera, eta liburuan askotan aipatzen du horrek nola eragiten dion. Kontraesanak ditu; ingelesez idaztearen kontraesanak, baita genozidioa kanpotik ikustearen kontu horrek nola eragiten dion ere. Horrela definituta nik uste pertsona interesgarria dela.

Liburuaren izenburua amonaren izena da. Zer lotura zeukan bere amonarekin?

Lotura oso estua, egia esan. Rifqa izan zen palestinar ikono oso garrantzitsu bat. Pisua izan zuen bai palestinarren historian bai Mohameden bizitzan, noski. Kontatzen du poemak lurrean jarri zituela eta konturatu zela gai komuna amona zela. Lotura estu horrek egin dio harekiko garrantzia hori aipatu nahi izatea liburu honetan. Aipatzen dituen gauzen artean badago bat esaten duena ohikoa zela amona anbulantzia ikustea gas negargarriarekin mindutako pertsonak yogur eta tipularekin sendatzen. Baita eramaten zuela haren hiriko etxeko giltza lepoan beti. Palestinarren zerbait ohikoa da etxeko giltza lepotik eramatea.

Liburu erakargarria da, ezta?

Poesiari askotan badiogu horrelako beldur bat, ez dugulako ulertuko edo konplikatuegia den kontu bat delako. Baina ez dut uste liburu hau konplikatua denik. Konplikatua da kontatzen duenagatik barruan sentitzen duzun horregatik, hori gainditzeko; baina irakurtzeko ez dut horrelako zailtasunik nabaritu. Ni ere saiatu naiz hitz arrarorik ez erabiltzen, ez dituela erabiltzen. Badu hitz esanetik asko, eta horrek eragin handia du irakurtzeko erraztasun horretan. Baina krudela eta bortitza da.

Zein gai jorratzen ditu idazleak?

Heriotzaren inguruan asko hitz egiten du, dudarik gabe. Amonaz ere asko hitz egiten du, oso presente dago, ez da guztietan ateratzen, baina hor dago Rifqa izena askotan. Genozidioaren inguruko gauzak kontatzen ditu; kolonialismoa, indarkeria sistematikoa eta estrukturala. Ame-

"HERIOTZAREN INGURUAN HITZ EGITEN DU, AMONA, KOLONIALISMOA, INDARKERIA..."

rikako Estatu Batuetako indarkeria ere lantzen du; garbiketa etnikoak, etxegabetzeak... LGTB komunitatearen kontuak aipatzen ditu ere. Gai asko lantzen ditu aldi berean.

Ingelesez idatzita dago, eta haren ondoan euskarazko itzulpena du.

Editoreek nolabait gorde eta go-raipatu nahi izan dute jatorrizkoa. Mohamedek oso ondo idazten du, eta oso berezia da haren idazteko modua. Katakraken liburu sail honen beste liburuekin berdina egiten ari dira. Editoreen hautua da, itzultzaileek ez dugu horretan zerikusirik, baina guretzako zailagoa da jatorrizkoa ondoan edukita badagoelako nolabaiteko urruntzeko gaitasun handiagoa. Konturatzen gara jendeak irakurtzerakoan jatorrizkoa ere uler dezakeela eta beldur gehiago atera daitezke.

Rifqa liburua aurkezteko poesia errezital musikatuak egiten dituzue. Zergatik?

Itzulpena egiten ari nintzenetik konturatu nintzen hitz esanetik asko daukala; ahoz gora esateko eginda daudela poemetako asko. Xalbarekin hitz egiten egon nintzen, itzulpena egiten nengoenan gomendioak eskatzen nizkiolako, eta komentatzen aritu ginen ongi egongo zela musika jartzea eta nolabait errezitatzea eta errezitala egitea. EHZ jaialditik proposamena iritsi zitzaigun eta korrika eta presaka zerbait sinplea, nolabait esateko, prestatu genuen. Hori hobetzen ari gara gerora. Itzultze prozesu horretan konturatu ginen ahots gora esatekoak zirela, eta Euskal Herrian ere garrantzitsua zela ahoz gora esatea. 2024an lau bat emanaldi egin ditugu eta 2025erako beste hainbat ditugu aurreikusita, tartean martxoaren 7an Lakuntzako.

Literatura geraldia

Martxoak 7 Rifqa: honengatik egiten dugu dantza poesia errezitaldi musikatu.

Martxoak 13 Miren Agur Meaberen *Larruaren kodea* hitzaldi errezitaldia.

Apirilak 23 Pako Aristiren *Arroilaren negarra* aurkezpena.

"Nire momotxorroa ez dut ihoteetan mustu"

Astearte ihoteko segizioan aurten ez dira faltako maskaririk, sorginak, Joanranposoak, Akerra eta, jakina, momotxorroak. Mozorro hori jantziko ez badu ere, halakoak egiten aurten hasi da Unai Irigoien Ausin

ALTSASU

1 Noizkoa da momotxorro baten zure lehen oroitzapena?

Etxean ditudan haurra nintzeneko argazkiak: nire momotxorro mozorroarekin jantzita. Txikitik gurasoek mozorro bat oparitu edo prestatu zidaten. Urteekin txikia gelditu zitzaidan eta Matxigaiztoz mozorrotzera pasa nintzen, gazte asanbladak asmatutako pertsonaia. Denborarekin txikitatik gustatu zaizkidan beste mozorro batzuk prestatu ditut: zaldi buruaren hezurra daukana eta pertzan gibelak eramaten dituena, eta joan zen urtean hartza. Niretako momotxorro bat prestatu dut azken urteetan, baina oraindik ez dut ihoteetan mustu.

2 Beraz, txikitatik ihoteetan?

Bai. Txikitatik gustatu zait. Zerbait oso herrikoia, oso gurea da. Eta ez bakarrik ihoteak, baita aurreko hilabeteek dakarten lan eta sentsazio horiek guztiak ere. Talde oso txiki bat gaude. Gustatzen zaigu urtean zehar hilero zerbait egitea: hezurrak, narruak, adarrak eta beste bilatzea. Hori izan da gure denbora pasa.

3 Aurten zein plan duzu?

Hartzaz mozorrotuko naiz. Joan zen urtean proba izan zen, mozorroa nola ateratzen zen jakiteko. Gezurretako narruak zituen. Aurten benetako narruekin ongi moldatu dugu mozorroa.

4 Momotxorroak zer egiten du?

Negua bukatzen dela esaten duen pertsonaia da, naturaren esnatzea. Ihoteetan jendea zirikatu eta izutzen du. Eta jantzia duenak ongi pasatzea. Altsasun pertsonaia asko daude. Aurten bereziki maskarita nabarmentzea izan da helburua. Batzorde



Unai Irigoien Ausin hartz mozorroa jantzita. UTZITAKOIA

deko lagunak lan ederra egin dute.

5 Momotxorroz mozorrotzeko?

Saskia, adarrak, narrua, ipurukoa-eta. Hori edozeinek munta dezake. Eros daitezke, baina nork berea prestatzea gomendatzen dut. Nik neuk egindako mozorroak askoz ere gehiago gozatzen ditut. Gainera, baserritar jantzia: zatak, galtzerdiak, mahoizko praka, ator txuria eta odolez zikindutako izara txuria.

6 Eskulanak gustuko dituzu?

Bai, txikitatik asko gustatu izan zaizkit. Amari ere gustatzen zaizkio eta txikitatik aritu gara denetariko eskulanak egiten.

7 Momotxorroak egiten, nolaz?

Lagun batzuk bizpahiru urte daramatzaugu ihoteen aurretik

daukagun denbora mozorroak egitera eskaintzen, ihoteekin zerikusia duen edozer egiten. Nahiko frikiak gara, ni bereziki. Niretako mozorro asko egin ditut. Batzuetan zein jarri ere ez dakit. Hori egiten asko gozatzen dut, zaletasuna da. Zerbait egiteagatik, nituen mozorroak aldatzen ari nintzen. Azkenean, denbora galdu eta nire mozorroei gainkarga jartzen nien. Gainera, dirua xahutzen nuen. Aspaldi nuen buruan momotxorro edo ipurukoren bat saltzea dirua berreskuratzeko. Hori izan da: gustatzen zaidanean denbora ongi ematea, logikarekin. Norbaitek momotxorro edo ipurukoa behar badu, gustura egin dezaket.

8 Materialak nondik lortzen dituzu?

Lortzea zailena da. Narrua lortzea zaila da, galtzen ari den lan bat

delako. Nik uste geroz eta zailagoa izanen dela hori lortzea. Nik Tuterako enpresa batean edo Altsasuko Unamunorenean erosten ditut. Adarrak, behiak dituen jendearekin kontaktuak izatea da, edo mendian aurkitzea. Saltzen duenik bada. Aurpegia estaltzeko erabiltzen den zurda, zaldi ilea, opatzea ere oso zaila da. Denborarekin eta hitz eginda lortzen diren materialak dira.

9 Jendeak pertsonalizatzeko eskatzen dizu?

Ilbeltzean erabaki nuen momotxorroak egin eta saltzen hasia. Instagrameko Irigoien Momotxorroak duela gutxi hasi nuen. Ihoteak bertan direla, jende zenteren mozorroa bukatzen ari naiz, eta daukadan materialare-

kin moldatzen da. Oraintxe bertan kapritxo asko ez ditut ikusi. Dagoena dago. Urte bateko epearekin, bai: "narru hau gustuko dut, edo forma hori".

10 Denboraldiko lana da?

Mozorroa denborarekin egitea gomendatzen dut, denborarekin enkargatzea, gutxienez bi hilabete lehenago sorpresarik ez izateko. Azken unerako utzita, prestatzea zaila izanen da materialak lortzea zaila baita. Eta ihote aurreko egunak denok gozatu behar ditugulako.

11 Zuk eginak identifikatuko dituzu?

Bai. Ez ditut asko egin, eta nirekin egonen diren jende ezagunarenak dira.



gik
DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

Behar duzun guztia

MAKETAZIOA KARTEL GINTZA
IRUDI KORPORATIBOAK
K EGUTEGIAK AGENDAK
ROLL-UP
PEGATINA
URUAK
ANDIKO
ARRIAK
KARRIAK
LETINAK
BISITA
A TXARTELAK
KAZIOAK
LAK

**BAZKIDEEK
DES
KON
TU
BEREZIAK**

fo

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus